

Eskubideak defendatzen bizitzea

Hogei kontakizun grafiko
giza eskubideen defentsan

Eskerrak:

Abeer Zayyad, Hermanos en el Camino
migratzaileen aterpea, Arcoiris LGTB elkarte
Chicoyoguitoko auzo elkarte
Alta Verapazen, Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa (CALDH), San Jose Apartadoko Bake Komunitatea, Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionala (CONAVIGUA), Giza Eskubideen

Tlachinollan Mendiko Zentroa, Landako Langileen Sindikatu Nazionala (CNTC), Emakumearen Hondurasko Aztergunea, Hondurasko Atxilotu Desagertuen Senideen Batzordea (COFADEH), Nekazari Batasunaren Batzordea (CUC), Dina Meza, Puente Nayeroko Gune Humanitarioa Buenaventuran, Choco Etnien Elkartasunerako

Foroa (FISCH), Khitam Saafin eta Palestinako Emakume Batzordeen Batasuna (UPWC), Lolita Chavez eta Kitxe Herrien Kontseilua (CPK), Pasta de Conchos Familia Antolakundea, Emakumeen Bide Baketsua, Cacaricako Eremu Humanitarioak eta PBI Nazioarteko Bake Brigaden tokiko taldeak eta Mundubat.

Eskubideak defendatzen bizitzea

Hogei kontakizun grafiko
giza eskubideen defentsan

Egileak: Nazioarteko Bake Brigadak eta Mundubat Fundazioa
Koordinazioa: Miriam García-Torres
Argazkiak: Juan Manuel Barrero Bueno, Bianca Bauer, Emmanuel Guillen Lozano, Prometeo Lucero, Nicky Milne Thomson, Ricardo Ramirez Arriola, James Rodriguez, Francesca Volpi, Natalia Quiroga, Nuria González
Testuak: Miriam García-Torres, James Rodríguez, Francesca Volpi, Hugo Hernández
Berrikuspenak: Bianca Bauer, Miriam García-Torres, Graciela Martínez González, Mar Saiz, Silvia Weber, Hugo Hernández
Itzulpena: Bidera Zerbitzuak
Diseinua eta maketazioa: porENDE estudio gráfico
Inprimaketa: Gráficas J. Martínez
Bigarren argitalpena: Donostia, 2018ko apirila



Diruz lagundu duena:



Aurkibidea

Sarrera	7
Memoria historikoa berreskuratzea, zigorgabetasunaren eta desagerrarazpenen kontrako borroka	8
Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa (CALDH)	10
Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionala (CONAVIGUA)	14
Hondurasko Atxilotu Desagertuen Familiakoen Batzordea (COFADEH)	18
Giza Eskubideen Tlachinollan Mendiko Zentroa	22
Chicoyoguitoko auzo elkarte	26
Abeer Zayyad	30
Lurraren eta lurraldearen defentsa, nekazarien eta herri indigenen eskubideak	34
Nekazari Batasunaren Batzordea (CUC)	36
Landako Langileen Sindikatu Nazionala (CNTC)	40
Choco Etnien Elkartasunerako Foroa (FISCH)	43
Lolita Chavez eta Kitxe Herrien Kontseilua (CPK)	46
Emakumeen eskubideak eta LGBTien eskubideak	50
Emakumearen Aztergunea-Honduras (CEM-H)	52
Emakumeen bide baketsua	56
Arcoiris LGTB elkarte	58
Khitam Saafin – Palestinako Emakume Batzordeen Batasuna (UPWC)	62
Migrazioa eta mugimendu askatasuna	64
Hermanos en el Camino migratzaileen aterpea	66
Adierazpen eta informazio askatasuna	70
Dina Meza	72
Lan eskubideak	76
Pasta de Conchos Familia Antolakundea	78
Bakezko komunitate ekimenak	82
Eremu Humanitarioak Cacarican	84
Puente Nayero Eremu Humanitarioa, Buenaventura	88
San Jose Apartadoko Bake Komunitatea	92



1998an, Nazio Batuen Erakundeak adierazpen bat onartu zuen giza eskubideen defendatzaileen inguruan. Testuak honela du izena ofizialki: «Mundu osoan aitortuak diren giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeko eta babesteko, norbanakoek, taldeek eta erakundeek duten eskubideari eta eginbeharrari buruzko Adierazpena». Aitorpen bat da giza eskubideak mundu osoan defendatzen dituztenen alde; ezagupen bat, azken batean, egiten duten lan garrantzitsuaren alde. Berak babesteko nazioartean hitzarmenak eginak badaude ere, giza eskubideen defendatzaileek —pertsonak, erakundeak nahiz komunitateak—, maiz, aurre egin behar izaten diote indarkeria eta arrisku handiko ingurune bati: eskubide-urraketa sistematikoak jasaten dituzte, zergatik eta eskubideak defendatzeagatik. Esan gabe doa, 2016. urtean, mehatxatuak izan direla giza eskubideen 1.000 defendatzaile baino gehiago, mehatxatuak eta, gainera, jazarriak, atxilotuak eta kriminalizatuak; baita eraso fisikoak, legalak eta sozialak ere jasan dituzte. Horrez gain, 25 herrialdetako 281 lagun, bederen, hil egin zituzten¹, besteren artean, lurraldea eta ingurumena zaintzeagatik, herri indigenen eskubideak babesteagatik eta sexu eta genero identitateak defendatzeagatik.

Ustiapen horren bitartez, Nazioarteko Bake Brigadek eta Mundubat fundazioak ezagupen bat egin nahi diegu pertsona, erakunde eta komunitate horiei guztiei; izan ere, indarkeriari eta aurkako testuinguruei aurre eginez, egunero-egunero sustatzen dihardute

eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak eta ingurumen arlokoak.

Hona hemen giza eskubideen defendatzaileen hogeï kasu, bost herrialdetan gertatuak: Mexikon, Hondurasen, Guatemalan, Kolonbian eta Palestinan. Hemen ageri diren istorioak lagin txiki bat baino ez dira mundu osoan gertatzen diren borroka ugarietan. Irudiekin lagundutako kontakizunen bitartez, haien borrokak, eskakizunak, arriskuak eta ekimen kolektiboak ikusaraztea da erakusketa hau egiteko motiboa.

¹ Front Line Defenders, 2016. «Informe Anual del 2016 sobre Defensores/as de Derechos Humanos en Riesgo». <https://www.frontlinedefenders.org/es/resource-publication/annual-report-human-rights-defenders-risk-2016>



Memoria historikoa berreskuratzea, zigorgabetasunaren eta desagerrarazpenen kontrako borroka

Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa (CALDH)
GUATEMALA

Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionala (CONAVIGUA)
GUATEMALA

Hondurasko Atxilotu Desagertuen Familiakoen Batzordea (COFADEH)
HONDURAS

Giza Eskubideen Tlachinollan Mendiko Zentroa
MEXIKO

Chicoyoguitoko auzo elkarte Alta Verapazen
GUATEMALA

Abeer Zayyad
PALESTINA

Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa (CALDH)

GUATEMALA

Magdalena Marcos De Leon, ixil etniako emakume maia, deklaratzeko ageri da, Efraín Ríos Montt jeneralaren aurka —1982ko martxotik 1983ko abuztura izandako diktadura militarrean estatuburu egon zena—, genozidioagatik eta gizateriaren betebeharren aurkako delituengatik egindako auzian. 80 urteko kartzela zigorra eman zioten Ríos Montti, 2013ko maiatzaren 10ean, delitu horiengatik. Hamar egunen buruan, legez kanpoko ebazpen batekin, Konstituzionaltasunaren Auzitegiko hiru epailek atzera eramane zuten prozesua, kontu tekniko bat zela medio. Gaur egun, salaketa bat dago, ikerketa fasean, hiru epaileen aurka, prebarikazioagatik. CALDH ari da kasu honetan, auzi-jartzaile atxiki eta aholkulari legal gisa, Justiziaren eta Bakearen aldeko Elkartearentzat.

— James Rodríguez — 2013ko apirila

1996ko abenduan, 30 urteko gatazka armatua amaitu zen Guatemalan. Gatazka hartan, gutxienez 200.000 pertsona zibil hil ziren; 40.000 desagertu, 200.000 errefuxiatu ofizial izan ziren, eta milioi bat lagunek desplazatu egin behar izan zuten herrialde barruan. Gertaera Historikoa Argitzeko Batzordeak ondorioztatu zuenez, identifikatutako biktimen %83 baino gehiago maia zibilak ziren, eta giza eskubideen urraketen %93, gutxienez, estatuaren indarrek eta egitura paramilitarrek gauzatu zituzten. Batzordearen arabera, operazio militarrek genozidio bihurtu ziren zenbait departamendutan.¹

30 urte geroago, 2013ko maiatzaren 10ean, kondenatu egin zuten orduko jeneral eta estatuburu Efraín Ríos Montt, baizik eta ixil herriaren kontrako genozidioa egin zuela. Epaia historikoa izan zen hura. Hala ere, hamar egunen buruan, Konstituzionaltasunaren Auzitegiak atzera bota zuen epaia, formazko hutsegiteak izan zirela eta.

Zer den Giza Eskubideen Ekintza Legaletarako Zentroa (CALDH): gobernu kanpoko erakunde sozial bat da, 1989tik aholku ematen diena barne gatazkan giza eskubideen urraketatik bizirik atera ziren biktimei eta egia eta justizia bilatzen duten biktimen erakundeei; hala, giza eskubide integralen aplikazioan eta sustapenean jartzen du ardatza.

Barne gatazkaren garaian izandako giza eskubideen urraketa larriek eragin handia hartzen duten kasuetan aritzen da, orobat Guatemalan lurraren eta lurraldearen

defentsan diharduten defendatzaile kriminalizatuen alde, eta iragana - oraina harremanean oinarritzen da egiturazkoak diren arazoei aurre egiteko.

Ibilbide kolektibo horren bitartez, CALDHek laguntzen du egia argitzen eta ezagutarazten, herrien memoriari esangura berria ematen, emakumeen kontrako urraketen kontinuuma ikusarazten eta justizia era askotarikoak indartzen, berriz gertatuko ez dela bermatzeko.

¹ Guatemalako PBI. 2016. «Memoria del foro público: 20 años de los Acuerdos de Paz. La situación de las personas defensoras de los Derechos Humanos»



Bizirik atera ziren Nebajeko ixil etniako emakume, lider espiritual eta komunitateko agintari maiak, Epaitegiaren ebazpena ospatzen, Efraín Ríos Montt kondenatu zuenean genozidioagatik eta gizateriaren betebeharren aurkako delituengatik: matxinatuen aurkako estrategia ezarri zuen, eta komunitateko 1.771 ixil garbitu zituen 1982tik 1983ra hartutako agintaldian.

James Rodríguez 2013ko maiatza



Andrés Hernández (zutik), 18 urtekoa, ibilbide bat erakusten Oroimenaren Etxean; espazio horretan, CALDHek laguntzen du Guatemalako gizarteari bere historiaren garrantzia azpimarratzen, ikusaraziz nolako borrokak eta erresistentziak egin dituen eta bermatuz ez direla berriz gertatuko giza eskubideen urraketa larri horiek. Oroimenaren Etxea museo bat da Guatemalako Hiria erdialdean, «gazteek jakin dezaten zer izan den borrokaren eta erresistentziaren historia, eta herrialde hau ezberdina izan dadin», dio Francisco Sotok, CALDHeko zuzendariak.

James Rodríguez 2017ko ekaina



Domingo Baltazar, Santa Eulaliako lider espiritual eta lurraldearen defendatzailea, preso politikoa izan zen Huehuetenango iparraldean, 2015etik 2016ra, zergatik eta aritu zelako Q'anjob'al eremu maiako ibailetako urak hartzearen aurka, presa hidroelektrikoetarako erabili nahi baitzituzten. CALDHek auzi-koalizio bat eratu zuen abokatu maiekin, Giza Eskubideen Bufetearekin, CUCekin, Benito Morales eta Javier García maiekin, eta denek elkarrekin lortu zuten Huehuetenango iparraldeko zazpi preso politikoren errugabetasuna erakustea 2016ko uztailan, eta, hala, aske geratu ziren.

James Rodríguez 2017ko otsaila

Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionala (CONAVIGUA)

GUATEMALA

Comalapako kakchiquel emakume maiak eta Conaviguako kideak, berreskuratutako 10 hezurdurak jaso zituztenean Guatemalako Antropologia Forentseko Fundazioaren eskutik. Comalapako antzinako destakamentu militarretik berreskuratu zituzten gorpuzkiak, eta familiakoei eman zizkieten DNA bidez identifikatu ondoren.

James Rodríguez 2014ko uztaila

EMAKUME MAIA TALDE BATEK eratu zuen Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionala (CONAVIGUA), 1988an; batez ere San Juan Comalapakoak aritu ziren horretan, zeinak 80ko hamarkadaren hasieran eta erdialdean alargundu baitziren, gerra zela medio. Esan beharra dago Guatemalako barne gatazkan 200.000 zibil, bederen, hil egin zituztela eta beste 40.000 desagertu egin zirela. Identifikatutako biktimen %83 baino gehiago maia zibilak ziren.¹

CONAVIGUAren lehenbiziko helburuetan zegoen elkartasun sare bat eratzea gatazka armatutik bizirik atera ziren biktimen artean, premiarik oinarritzkoenak eta larrienak konpontzeko, hala nola janaria, zerbitzu medikoa, aterpea eta elikadura. Geroago, sarraskitutako edo desagerrarazitako senideak bilatzen hasi zen erakundea hobietatik aterata. 2003 eta 2005 artean, 179 giza hezurdura atera zituen, legez, Comalapako antzinako destakamentu militarreko hobietatik.

CONAVIGUAK eraldatu egin zuen destakamentu zaharra, eta memoria historikoa berreskuratzeko gune bihurtu.

Gaur egun, giza eskubideen erakunde bihurtu da koordinakundea, eta zenbait programatan ari da; besteren artean, lurraldearen aldeko lanean, genero berdintasunean eta Gazte Maien Mugimenduan (MOJOMAYAS). Horrez gain, jarraitzen du gerra ostearen testuinguruan Justiziaren eta Duintasunaren programekin.

¹ Guatemalako PBI. 2016. «Memoria del foro público: 20 años de los Acuerdos de Paz. La situación de las personas defensoras de los Derechos Humanos»



Rosalina Tuyuc, CONAVIGUAren sortzailea eta zuzendaria, maien ospakizun baten buruan, antzina Comalapako destakamentu militarra egon zen orubean. 2003 eta 2005 artean, 179 pertsonaren gorpuzkiak atera zituzten destakamentu zaharretik. Tuyucek, CONAVIGUA 1985ean eratu zuenak, itxaro du aitaren gorpuzkiak identifikatuko dituztela, Francisco Tuyucenak, 1982an atxilotua-desagertua, lehen senarrarenak bezala, 1985ean atxilotua-desagertua.

James Rodríguez 2015eko azaroa

Fidelia Sahuach De Leon (eskuinean, urdinez), CONAVIGUAko kidea, begira, nola ari den Guatemalako Antropologia Forentseko Fundazioko Yeni De Leon antropologo forentseak Simon Buc Tamat senar zenaren gorpuzkiak konpontzen. Buc Tamat atxilotu egin zuten etxean, eta Estatuko indar armatuek desagerrarazi zuten 1982ko maiatzaren 4an. Haren gorpuzkiak San Jose Poaquiren azaldu ziren, ezkutuko hobi batean 2013an; DNA bidez identifikatu zuten, eta senideei itzuli zieten lurpera zezaten.

James Rodríguez 2015eko urria



Gazte Maien Mugimenduko (MOJOMAYAS) kideak, argazki baterako jarriak, horma-irudi baten aurrean, Comalapan. MOJOMAYAS CONAVIGUAren adar bat da, zenbait komunitatetako gazteak hezteaz eta antolatzeaz arduratzen dena, ez bakarrik beren eskubideak zein diren ikas dezaten, baizik eta baita beste gazte batzuk kontzientzia ditzaten ere memoria historikoaren prozesuaz eta lurraldearen aldeko borrokaz.

James Rodríguez 2017ko ekaina

Hondurasko Atxilotu Desagertuen Familiakoen Batzordea (COFADEH)

HONDURAS

Bertha Oliva, COFADEHeko koordinatzaile nagusia

Francesca Volpi 2017ko maiatza

HONDURASEN 1981EAN prozesu demokratikora itzulitzearekin, urteko diktadura militarren ondoren, ez zen etorri giza eskubideen errespeturik. Bestaldera, garai horretan, Segurtasun Nazionalaren Doktrina aplikatzen hasi zen estatua, eta horrek giza eskubideen urraketa sistematikoak ekarri zituen, hala nola torturak, hilketa politikoak eta desagertuen behartuak. 80ko hamarkadan gizartea militarizatu egin zuten, eta erakunde zibilak indar armatuen menean gelditu ziren. Horrek estatu terrorismoa ekarri zuen disidentzia sozial eta politikoarentzat. 1980 eta 1989 artean, 184 lagun desagertu ziren. 1995erako, 200 lagunetik gora ziren.¹

Testuinguru horretan eratu zen Hondurasko Atxilotu Desagertuen Familiakoen Batzordea (COFADEH), zigorgabetasun oro borrokatzeko eta desagerrarazpenen biktima izan direnen memoria kolektiboa bizirik gordetzeko. Erakundea hamabi familiak sortu zuten, 1982an; senide desagertuak bilatzeko elkartu ziren. Horien artean zen Bertha Oliva de Nativi, gaur egun COFADEHeko koordinatzailea dena; senarra, Tomas Nativi, Union Revolucionaria del Pueblakoa zuen, eta bahitu eta desagerrarazi egin zuten.

«Tomas desagertu zenean galdu nuen beldurra», esan zuen Berthak elkarrizketa batean.² «Zer gertatu zen jakiteko minak eta itxaropenak gaingiditu zidaten beldurra. Eta gaur, egunero ikusten ditudan bidegabekeriek beldurra kenarazten didate. Ez dut uste arriskutik kanpo naizenik, baina aurrera noa egoki eta zuzen deritzodana eginez. Beldurra eta mehatxuak direla eta, ez nau

etsiak hartuko, zeren eta jakiteko premia dut, ibiltzeko premia, laguntzekoa, hutsik ez egitekoa. Giza eskubideetan sinesten dudalako besarkatu nuen nire herriaren iraganeko sufrimendua, eta herriaren minak bizi nau gaur egun.

COFADEHk lanean ari da giza eskubideen urraketen biktima izan direnak babesten eta ordezkatzeko; berebat dihardu giza eskubideen sustapenean eta lanketan, kasuak ikertzen eta dokumentatzen, eskubide kolektiboak defendatzen, eta adierazpen askatasunerako eskubidea sustatzen.

Haren ekimen nabarmenetako bat Memoriaren Bidea da. Ibilbide bat da, erakusten dituen ezkutuko hilerriak eta kartzelak, kuartel militarrek eta biktimak gizartean aldarrikatzeko plazak; eta horren helburua da historia gordetzea oroitzapenak eta memoria kolektiboa berreskuratuta. Gaur egun, giza eskubideen arloan Hondurasean dagoen erakunde printzipaletako bat da, eta oso saiatzen da gaur egun urratzen diren giza eskubideak jasotzen eta salatzen, 2009ko Estatu kolpea izan zenetik.

Haren zeregina dela eta, COFADEHeko kideek eta haien senideek maiz jasaten dituzte mehatxuak, jarraipenak, erasoak, jazarpenak eta bahiketak. Bertha Olivak gauzak nola ikusten dituen kontatu zuen elkarrizketa batean: «Gibelera, ingurura eta aurrera begiraltzen badut bulegora noanean edo etxera itzultzean, da bizirik izateko sena bere horretantxe dudalako. Larderia eta mehatxuak erabiltzen dituztenak beti saiatzen dira giza eskubideen urraketa larrien biktima izan direnek ez dezaten duintasunik izan



eta haien memoria betirako hobiratu izan dadin».³

Bere kideenganako eta senideenganako mehatxu eta larderien gainera, COFADEHek duintasunez lan egiten du. 2005. urtean, Bertha Oliva hautagai izan zen Bakearen Nobel Sarietarako mila emakumeko zerrenda batean.

¹ <http://www.cofadeh.org>

² «Bertha Oliva, defensora y fundadora del COFADEN: entrevista sobre la situación de derechos humanos en Honduras», Protectionline, 2011ko urtarrilaren 25a. <http://protectionline.org/es/2011/01/28/bertha-oliva-defensora-y-fundadora-del-cofadeh-entrevista-sobre-la-situacion-de-derechos-humanos-en-honduras/>

³ «Bertha Oliva de Nativí», 1325 mujeres tejiendo la paz. http://www.1325mujerestejiendolapaz.org/otrsem_bertha.html

Desagertuen argazkiak, COFADEHek Tegucigalpan duen bulegoan.

— Francesca Volpi — 2017ko maiatza

COFADEHek Tegucigalpan duen bulegoaren barnealdea.

— Francesca Volpi — 2017ko maiatza



Francisco Ramirez, Guadalupe Carneykoa, Guadalupe Carneyko komunitatean, Aguan nekazari-mugimendukoa da, Colonen, Karibe aldeko Hondurastik hurbil. El Tumbadorko hondamenetik bizirik atera zirenetako bat da, 2010eko azaroaren 15ean; egun horretan, afrikar palmaren landaketa bateko segurtasun indar pribatuek nekazari talde bat atzeman eta haietako bost hil zituzten. Nekazariak lurra legeztatzearen inguruan negoziatzen ari ziren gobernuarekin eta lurjabeekin. Franciscok tiro bat hartu zuen aurpegian. COFADEHek eta beste erakunde batzuek lagun egiten diote Aguango nekazari mugimenduari. Mugimendu horrek eraso eta jazarpen sistematikoak jasan ditu lurra eskuratzeko borrokan.

— Francesca Volpi — 2016



Giza Eskubideen Tlachinollan Mendiko Zentroa

MEXIKO

GIZA ESKUBIDEEN ERAKUNDE BAT DA GIZA ESKUBIDEEN TLACHINOLLAN MENDIKO ZENTROA (CDHM), eta 1993tik lanean dihardu Guerreroko estatuan, Mexiko hegoaldean.

Erakundearen zeregina da Montaña eta Costa Chicako udalerrri indigenei begirakoa. 300.000 lagunetik gora bizi dira eskualde horietan, eta hiru etniatakoak dira gehienak, mixteca, nahua eta me'phaa, 600 komunitatetan banatuak. Eskualde indigena hori bazter eremu larritzat izendatua dago, eta Mexikoko eskualderik pobretuenetako bat da. Herri indigenek jasan dituzten urraketa ugariak direla eta —giza eskubideen urraketa sistematiko eta etengabeak jasan ere—, Tlachinollango zentroa lanean ari da herri horien giza eskubideak babesten eta sustatzen.

Gaur egun, Tlachinollango zentroak babesa eta laguntza ematen die Ayotzinapako 43 ikasle desagerrarazien familiei ere; 2014ko irailaren 26an eta 27an desagertu ziren. Egundaino ez dakite non diren ikasle horiek, ikerketetan ere ez da izan aurrerapen handirik. Horretan dihardu Aditu Independenteen Talde Interdiziplinarioak;

zentroa da talde horren burua, eta laguntza teknikoa ematen dio Mexikoko Gobernuari. Inor ez dute prozesatu delitu horientatik, eta atxilotuetako askori tortura eta bestelako tratu txarrak jasan izanaren zantzu ankerrak, gizagabeak eta apalgarriak ikusi zitzaizkien. Gertaerengatik justizia eta erreparazioa eskatzen dutenek mehatxuak eta irainak hartzen dituzte maiz.¹

Ez da izan inondik inora ere kasu bakan bat. Iguan, Ayotzinapako «Raul Isidro Burgos» Eskola Arautuko 43 ikasleekin gertatu denak erakusten du nolako krisi larrian sartua den Mexiko, giza eskubideez, segurtasun faltaz eta zigorgabetasun endemikoaz denaz bezainbatean.² Edonor asalatzeko modukoak dira datuak: 2016. urtean, giza eskubideen 350.000 urraketa salatu zizkioten Giza Eskubideen Batzorde Nazionalari.³ Gainera, galdutako edo desagertutako pertsonen Erregistro Nazionalen, 30.000 desagertu baina gehiago jaso ditu herrialdean,⁴ eta Giza Eskubideen Nazioarteko Batzordean jartzen diren salaketan ia laurden bat Mexikotik dator.⁵

Vidulfo Rosales Sierra (mikrofonoan), Giza Eskubideen Tlachinollan Mendiko Zentroko abokatua, «Raul Isidro Burgos» Eskola Arautuko 43 ikasle desagerrarazien gurasoei lagun egiten.

Prometeo Lucero 2015eko otsaila





2014ko irailaren 26an hildako ikasleen erretratuak, omenaldi batean, Ayotzinapako Landa Eskola Arautuan.

Emmanuel Guillén Lozano

Horma-irudi bat, 43 ikasle desagertuen aurpegiekin.

Emmanuel Guillén Lozano



Indarkeria giro honetan, giza eskubideak defendatzen dituztenek arrisku gorriak ikusten dituzte bere zereginean.

Honela dio Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak 2016ko txostenean: defendatzaileenganako eraso kopurua igo egin da azken urteetan, eta mehatxuak, hilketak eta desagertpenak pairatu dituzte.⁶ Guerreroko estatua da arrisksuenetakoa bat giza eskubideak defendatzen dituztenentzat. 2010etik 2015era, gutxienez sei defendatzaile hil zituzten.⁷

Tlachinollango zentroa giro honetan ari da giza eskubideak babesten, zinez giro arriskutsu eta indarkeriazko honetan. Defentsa lan hori dela medio, kideetako batzuek mehatxuak eta erasoak jasan

dituzte, baita hilketak mehatxuak ere. Horren ondorioz, erakundeko abokatuak, Vidulfo Rosales Sierrak, herrialdea utzi behar izan zuen 2012an behin-behinean, bere bizia eta segurtasuna arriskuan zirelako.

¹ Giza Eskubideen Defendatzaile Sare Nazionala Mexikon. 2017. «Agresiones contra defensoras de derechos humanos en México. Diagnóstico nacional». Mexiko Hiria, Mexiko.

² OEA/CIDH, 2015. «Situación de derechos humanos en México». <https://www.oas.org/es/cidh/informes/pdfs/Mexico2016-es.pdf>

³ CNDH. 2017. «Informe de actividades 2016». http://informe.cndh.org.mx/uploads/principal/2016/Informe_2016_resumen_ejecutivo.pdf

⁴ Galdutako edo desagertutako pertsonen Erregistro Nazionala. <https://www.gob.mx/sesns/acciones-y-programas/registro-nacional-de-datos-de-personas-extraviadas-o-desaparecidas-rnpd>

⁵ «México, el país con más quejas ante la CIDH», Quadratin Mexiko, 2014ko irailaren 30a. <http://queretaro.quadratin.com.mx/Mexico-el-pais-con-mas-quejas-ante-la-CIDH/>

⁶ CNDH. 2017. «Informe de actividades 2016». http://informe.cndh.org.mx/uploads/principal/2016/Informe_2016_resumen_ejecutivo.pdf

⁷ CNDH, 2016. «Recomendación general N. 25 sobre agravios a personas defensoras de derechos humanos», 2016ko otsailaren 8a. http://www.cndh.org.mx/sites/all/doc/Recomendaciones/generales/RecGral_025.pdf

Chicoyoguitoko auzo elkarte Alta Verapazen

GUATEMALA

Filomena Chen, 58 urtekoa, arropilak prestatzen sukaldean. Chen andrea, zortzi umeen ama, izatez Chicoyoguitokoa da, eta Cobango Colonia Nueva Esperanza bizi da. Honela gogoratzen du komunitatetik behartuta ateratzeko: «Lurrak itzultzeko eskatzen dut, zeren eta hemen ez dago eta ereiteko lekuri, eta han bazen. Han jaio ginen, eta hantxe bizi izan nintzen gurasoekin eta anai-arrebekin. Gure lurra baita!»

James Rodríguez 2017ko ekaina

1968ko¹ UZTAILAREN 28AN, Guatemala

armadak Chicoyoguitoko q'eqchi' komunitate maiako 50 familia, armadak Coban kanpoaldean base militar bat ipintzea erabaki zuenean, Alta Verapaz departamentuan. Geroztik ez dute itzultzerik izan.

Familiak berehala pairatu zituzten beren lurretatik kanporatzearen ondorioak. Lurrak eta etxea kenduta, lurra erabiltzeko eskubidea galduta, janaririk ezin ekoitzi, eta familien pobrezia larritu egin zen, Barne Gatazka Armatuaren biktimak izateaz gain. Gerrako urteetan, Cobango 21. Base Militarra jendea atxilotzeko eta hiltzeko gune bihurtu zen, eta ehunka lagun desagerrarazi zituzten hainbat eskualdetatik ekarrita. 2012. urtean, Guatemalako Antropologia Forentseko Fundazioak borrokan sartuta ez zeuden 558 zibil indigenaren gorpuzkiak ateratu zituen base militarreko hobietatik,¹ haurrak, gizon-emakume helduak eta adin nagusikoak. Askok tortura arrastoak zituzten.

Urte horretatik, elkarrekin antolatuta dauden Chicoyoguitoko familiak borroka bat abiatu zuten, batetik, lurrak itzultzeko eskatzeko eta jasandako kalteengatik lehengoratzeko neurriak ere eskatzeko; eta, bestetik, memoria, egia eta justizia egiteko eskubidea erabiltzeko, 21. Base Militarrean urratutako giza eskubideak direla eta. Horra hor zergatik Alta Verapazko Chicoyoguitoko Auzo Elkarte izan den erakunde salatzailerako bat CREOMPAZ kasuan, gizateriaren aurkako delituengatik akusatutako militar goi-kargudunen kontra. Kasu hori izendatzeko siglak antzinako base

militarraren gaur egungo erabileratik datoz; gaur egun, Entrenamendurako Eskualde Komandoak eta Bakearen Mantenimendurako Operazioek erabiltzen dituzte. Gorpuak hilobietatik ateratu zituztenean, militar izandako batzuen aurkako epaiketa abiatu zen; militar horiek goi-karguak izan zituzten Cobango 21. Base Militarra martxan izan zen urteetan. Testuinguru horretan, 2016ko urtarrilaren 6an, hamalau militar erretiratu zigortu zituzten desagerrarazpen delituengatik eta gizateriaren aurkako krimenengatik; diotenez, hura da «Latinoamerikako desagerrarazpen kasurik handieneko bat».²

¹ «CIDH saluda detención de imputados por delitos de desaparición forzada y lesa humanidad en Guatemala», Amerikako Estatu Erakunde (AEE), 2016ko urtarrilaren 13a, prentsa oharra. <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2016/001.asp>

² «CIDH saluda detención de imputados por delitos de desaparición forzada y lesa humanidad en Guatemala», Amerikako Estatu Erakunde (AEE), 2016ko urtarrilaren 13a, prentsa oharra. <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2016/001.asp>



Rosa Chen, 73 urtekoa, gaztea zen Chicoyoguitoko komunitatea hutsarazi zutenean 1968an, eta honela gogoratzen du: «Egun hartan, bortxatu egin ninduten, eta gure etxeak erre zituzten. Emakume asko bortxatu zituzten. Gure aita, Santiago Pacay, hil egin zuten aurre egin zielako. Kalte-ordainak eta lurra nahi ditut. Jaungoikoari egun gehiago eskatzen dizkiot justizia ikus dezadan, nire ondokoei ondare on bat uzten diedala.

James Rodríguez 2017ko ekaina



2012an, Guatemalako Antropologia Forentseko Fundazioko kideek 558 hezurdura atera zituzten, lau hobotatik, Cobango 21. Base Militar zaharrean. Hezurduretako asko, trapuz inguratuta zeuden, eta tortura zantzuak zituzten. Chicoyoguitoko komunitatea ordezkatzeko duen elkarteak da salatzaileetako bat gizateriaren aurkako delituengatik epaitzen ari diren goi-kargu militarren kasuan. Latinoamerikako desagerrarazpen kasurik handiena ari dira epaitzen CREOMPAZ kasuan.

James Rodríguez 2012ko maiatza



CREOMPAZ izeneko kasuan gizateriaren aurkako delituak epaitzeko orduan salatzaile ari diren erakundeetako kideak, Chicoyoguitoko Auzo Elkarteak barne, Cobango Desagerrarazpenen Aurkako Egun Nazionaleko ekitaldi batean.

James Rodríguez 2017ko otsaila

Abeer Zayyad

PALESTINA

ABEER DA PALESTINAR ARKEOLOGO BAKARRA
Al Aqsaren inguruko egoitza historikoan lanean ari dena, Jerusalem. Gauza askoren artean, Palestinako historiaren ondarea eta sinboloak aztertzen aritzen da hiri horretan, eta erlijioa eta arkeologia bereiztearen aldekoa da, ikuspegi sionistaren kontra; izan ere, ikuspegi horren arabera, Israelen jatorria bere testu erlijiosoetan oinarritzen du, datu historiko egiaztatuetan oinarritu beharrean. Emakumearen defendatzaile irmoa da, eta AL Thori Silwan Women Centerren fundatzaileetako bat. Elkarte hori orain dela 10 urte baino gehiago sortu zuten Silwango auzoan, ekialdeko Jerusalemen, israeldar kokalekuek azken urteetan gogor jo duten eremu palestinar batean. Auzo horretan, udal baliabide gutxi-gutxi daude, eta emakumeek jasaten dute eskasia hori. Hori dela kausa, Zayyaden elkarte lanean ari da emakumea ahalduntzeko eta nolako eskubideak dituen erakusteko, zenbait jardueraren bidez eta elkarri laguntzeko sare iraunkor bat sortuta.





Abeerrek Jerusalemen izaera palestinarra defendatzen du, eta segregazio-sistemaren eta bazterketaren aurka borrokatzen da, horrelakoak pairatzen baitituzte palestinar biztanleek.

— Natalia Quiroga — 2017ko urtarrila



Silwango auzoan, etengabeko mehatxuan dihardute indar israeldarrek eta haien mekanismo kolonizatzaileek. Besteren artean, adingabeen atxiloteta sarriak, etxe-eraistek eta etxe-kaleratzeak erakunde kolonizatzaileen eskutik. Soinu handirik atera gabe, Silwango jendea erbesteratzen ari dira bere komunitatetik.

— Natalia Quiroga — 2017ko urtarrila

2000 Plana izenekoan, hor dator Silwan. Proiektu horren bidez, Silwango eremua urbanizatu nahi dute, Jerusalemen gehiengo judu bat gailendu dadin. Auzo horretako palestinarren etxeen %62tan eraisteko agindua emana dago, eta aldi berean etxe sail handi eta turistiko bat eraikitzen ari dira, Daviden Hiria izena hartuko duena.

— Natalia Quiroga — 2017ko urtarrila





Lurraren eta lurraldearen defentsa, nekazarien eta herri indigenen eskubideak

Nekazari Batasunaren Batzordea (CUC)

GUATEMALA

Landako Langileen Sindikatu Nazionala (CNTC)

HONDURAS

Choco Etnien Elkartasunerako Foroa (FISCH)

KOLONBIA

Lolita Chavez eta Kitxe Herrien Kontseilua (CPK)

GUATEMALA

Nekazari Batasunaren Batzordea (CUC)

GUATEMALA

Rio Polochic 2-ko komunitateko herritarrek, komunitateko arroz salletan, 2011ko martxoan, hamalu komunitateko 629 familia bortizki aterarazi zituzten Polochic-eko ibarretik, lur gatazkak zirela medio Chabíl Utzaj azukre konpainiarekin. 2016ko ekainean, CUCen babesarekin, aterarazitako 67 familiak orube bat erosi eta legeztatzea lortu zuten Panzosen, Alta Verapazén. Gaur egun, komunitate-proiektu batean ari dira, arroza, oila, ziratua eta artoa lantzen eta ganadua eta oiloak zaintzen.

James Rodríguez 2017ko ekaina

NEKAZARI BATASUNAREN BATZORDEA (CUC), 1978an sortua, baserritar, indigena eta herri antolakunde bat da, 8.000 familiatik gora elkartzen dituen herrialde osoan. Nekazarien soldatak hobetzeko erreakzio gisa jaio zen, eta herri indigenen militarizazioari eta diskriminazioari gogor egiteko.

Gaur egun, batzordeak hainbat zeregin hartzen ditu bere gain: jendeari sarbidea ematea Ama Lurra eskuratzeko, erabiltzeko eta jabetzan hartzeko; lurrarekiko errespetua hedatzea; landan aritzen direnen lan eskubideak hobetzea; landa eremuaren garapen komunitario eta produktibo integrala; genero berdintasuna eta aniztasun etniko, kultural eta linguistikoa sustatzea, Bake Akordioetan hala baitator.

Guatemalako egitura ekonomiko, sozial eta politikoan desoreka eta bazterketa handia dago: herritarren ia bi heren pobre bizi da, eta muturreko pobrezian direnen kopurua igo egin da %18,1etik %23,4ra, 25 urte honetan.¹ Gainera, gero eta inbertsio gehiago egiten dira megaproiektuetan; erauzketan oinarritzen dira batez ere proiektu horiek, eta horrek beste arrisku bat dakarkio Guatemalako herritarren segurtasunari. Aberastasuna oso modu desorekatuan banatuta dagoen honetan, CUC borrokan ari da egiturazko bidegabekeria eta bazterkeria horien kausei aurre egiteko; horretarako, nekazariak antolatu, politikoki prestatu eta mobilizatu egiten ditu, eta, hala, proposamen politiko eta teknikoak sortu, eta erabakigune politiko nahiz publikoetan lan bat egiten du.

¹ Guatemalako PBI, 2016. «Memoria del foro público: 20 años de los Acuerdos de Paz. La situación de las personas defensoras de los Derechos Humanos»



2012ko martxoan, 15.000 lagun inguru Guatemalako Hiriburura iritsi ziren, Indigenen, Nekazarien eta Herritarren Martxa Handi batean; martxaren gogoetan egon zen Ama Lurraren Defentsa, Kriminalizazioaren Borroka eta Landa Eremuaren Garapen Integralaren Sustapena. CUCek antolatu zuen, eta 212 kilometro egin zituzten bederatzi egunez.

James Rodríguez 2012ko martxoan



CUCeko kideak, Daniel Pascual zuzendaria barne (txapela eskuan duela), ospakizun maia batean, entzutegi-aretoaren kanpoaldean, Efraín Ríos Montten kontrako genozidio-epaiketan. CUCen lan ildo nagusia da partaidetza sustatzea Oroimen Historikoaren eta Trantsizio Justiziaren prozesuetan, gerra ostean den herrialde bat harturik testuinguru gisa.

James Rodríguez 2013ko maiatzan



2015eko abuztuaren 22an, larunbatarekin, milaka lagun elkartu ziren Guatemalako Hiriaren erdialdean den parkean, eta Roxana Baldetti presidenteorde izandakoak kargua utzi izana ospatzeko eta Otto Pérez Molina orduko presidentea ustelkeriagatik salatu izana goraipatzeko. Daniel Pascualek dioenez, hilabeteak protestan eman izanak eta azkenean zenbait agintarik beren karguak utzi eta kartzelatu izanak, horrek erakusten du ondoena nolako premia zegoen nazio ugariako estatu bat eraikitzeko.

James Rodríguez 2015eko abuztua

Landako Langileen Sindikatu Nazionala (CNTC)

HONDURAS

LANDAKO LANGILEEN SINDIKATU NAZIONALA (CNTC) da Hondurasen dagoen nekazari erakunderik inportanteenetako bat. 1985ean eratua nekazariei lurra izateko bidea emateko helburuz, ekitaldi ugari antolatu zituen hamar urtez nekazariak lurra berreskuratzeko.

Lurra izatea konpondu gabeko arazo historiko bat den herrialde honetan, CNTCK jarraitzen du borrokan lurra gizabidez banatua izan dadin eta nekazariak lurra izateko bidea berreskura dezaten. Orain arte, CNTCKo kide diren nekazari erakundeek lortu dute 69.000 hektarea baino gehiago berreskuratzea. Haren zereginen artean da politikoki eragitea lurra legeztatuak izan daitezen eta baliabideak eskuratzeko bidea izan dezaten, baita hezkuntzaren arloa lantzea ere. Gaur egun, 10.000 kide ditu nekazarien 878 enpresa elkartetan, eta eskatzen dute lurra eskuratzeko eskubidea. Hondurasko hemezortzi departamenduetatik hamalautan daude.

Horietako bat «Uztailak 9» nekazari enpresa da, Tutuleko udalerrian dagoena, La Pazko departamenduan. 2017ko urtarrilean, bortxan atera zuten zazpi urtean defendatzen aritu ziren lurretatik, botere ekonomiko handiko talde nazionalen interesak direla eta.

Gutxienez hamabi polizia-patruila nazional aterarazi zituzten; guztira, 80 poliziakide, eta nekazari enpresako 50 bazkide baino gehiagoren etxeak hondatu zituzten. Poliziek ez zekiten nekazari erakundeak babes helegitea aurkeztua zuela ateraraziak izan ez zitezen, eta kafe, arto eta babarrun sailak ere hondatu zituzten poliziek eta militarrek, orobat egin zuten fruta arbolekin eta familien baratzeekin.

Jendea aterarazteko orduan, poliziek eta militarrek inolako neurri gabe erabili zuten indarra, beren suzko arma eta negar gas. Hori ikusita, kezka erakutsi zuen Giza Eskubideetarako Nazio Batuek duten Mandatariak. Azkenean, lau nekazari zauritu egin zituzten. «Haiek etorri, eta eskubideak zapuzten hasten dira, tiroka; ez zaie inporta emakumeak haurdun badaude edo haurrak eta adinekoak tartean badira», dio Fabricio Velazquezek, Uztailak 9-ko kideak. Eta honela jarraitzen du haren salaketak: «Gure kide baten emazteak lehen haurra izan behar zuen, eta militarren erruz galdu zuen, negar gasak tiratzen etorri baitziren».

Jonhy Alfredo Mejia Torres, 23 urtekoa, hankan tiro batekin egin zizkioten zauriak erakusten. «Jazarpena oso gogorra da hemen, eta ez dugu ezer txarrik egiten. Gure



Uztailaren 9-ko nekazari enpresako kideak, poliziek haiek aterarazteko erabili zituzten negar gasak erakusten.

Francesca Volpi 2017ko maiatza

Innocenzo Galea Vazquez, poliziek aterarazi zituztenean erabilitako negar gasen potoak erakusten.

■ Francesca Volpi ■ 2017ko maiatza



familiantzako mantenua ateratzen dugu lurretik: artoa, babarrunak, kafea, frutak», dio. «Militarrek kideak eramaten dituztenean, beti egozten diete egin ez duten zerbait. Hasieran lurra indarrez hartzea egozten diete, eta azkenean beste kasu batzuk eranstean dizkiete, adibidez, armez eraso egitea, frogarik gabe»

Ez da lehen aldia, Uztailak 9-ko nekazari enpresako familiak kriminalizatu, auzipetu eta zapaltzen dituztena. Esan gabe doa Honduras dela munduan den herrialderik arriskutsuena lurra eta natura defendatzeko orduan. Global Witnessen arabera, 2010. urtetik 120 lagunetik gora hil dituzte herrialdean botere korporatiboei aurre egiteagatik; botere horiek lurra beretuak dituzte, eta ingurumena hondatzen dute.¹

¹ «Honduras: el país más peligroso del mundo para el activismo ambiental», 2017ko urtarrilaren 31, Global Witness, <https://www.globalwitness.org/fr/campaigns/environmental-activists/honduras-el-pa%C3%ADs-m%C3%A1s-peligroso-del-mundo-para-el-activismo-ambiental/>



Uztailak 9-ko nekazari enpresako kideak.

■ Francesca Volpi ■ 2017ko maiatza



Uztailak 9-ko nekazari enpresako kide bat bere etxean.

■ Francesca Volpi ■ 2017ko maiatza

Choco Etnien Elkartasunerako Foroa (FISCH)

KOLONBIA

Juan Manuel Barrero Bueno

Chocoko erakundeak elkartzen diren gunen bat da Choco Etnien Elkartasunerako Foroa, Chocoko departamenduan eta Antioquia Erdialdeko Atraton krisi humanitarioa larritu zenean sortua. Izan ere, Estatuak utziak ditu hango komunitateak, eta Kolonbiako gatazka armatuan ari diren zenbait talde daude.

Antolamendu aldetik denbora luzean aritu ziren pentsatzen nolako alternatiba osa zezaketen, eta, azkenean, gunen gisa egituratzea erabaki zuten, arrazoi hauek direla bide: erakundeak elkartu eta elkarri esperientziak kontatzeko, proposamen bateratuak egiteko, elkar babesteko, Chocoko arazoaren eta Antioquia Erdialdeko Atratokoaren ikuspegia bateratzeko, gaiak elkarrekin zehazteko eta eskualdean koordinaziorako mekanismo bat izateko. Horrela sortu zen Choco Etnien Elkartasunerako Foroa, herri beltzen, indigenen eta mestizoen duintasuna defendatzeko gunen gisa, lurraldearekiko erroak eta defentsa sustatzeko eta agintari tradizionalen eta kabildo indigenen parte hartzeari lekua egiteko.

Gaur egun, lurraldeko erakunde sozial eta etnikoen sare trinkoa da, eta 78 kide ditu. Foroak oso zeregin aktiboa du eskualdean, eta aitorpen eta zilegitasun handia ditu. Haren proposamenetatik ateratzen zen partaidetza eratzea Chocoko Eskualdeko Etnien Bake Agentzia, eta departamenduko Batzar legegileak bere egin zuen.

Lolita Chavez eta Kitxe Herrien Kontseilua (CPK)

GUATEMALA

KITXE HERRIEN KONTSEILUKO (CPK) koordinazioan ari da Lolita Chavez, 2008an eratu zenetik. Erakundearen eginkizun nagusia zera da, «bizitzaren, Ama Lurraren, Lurraren eta Lurraldearen defentsa egitea». Alde horretatik, eskubide hauek defendatu eta sustatzen ditu kontseiluak: herri indigenen eskubide kolektiboak, bizitzaren aldeko eskubidea, ura eta lurra izateko eskubidea eta, oro har, eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumen-arlokoak. Analisia, eztabaida, elkarriketa eta kontsentsua erabiltzen ditu CPK-k haren agintaldian erabakiak hartzeko orduan, eta lehentasunetan jartzen du ahotsa ematea Kitxeko departamenduko komunitate-batzarrei horrelako prozesuetan, eta haiek subjektu gisa ezagutuak izatea herriek bere buruaz erabakitzeko eskubidea dutenez gero.

Horren erakusgarri izan zen Kitxeko Santa Cruz udalerrian Buena Fe-ko komunitateari egindako kontsulta, ondasun naturala ustiatzeaz, CPK-k antolatua 2010ean. Azken emaitzak garbi askoak izan ziren: helduen %98k eman zuten botoa; 27.778 lagunek uko egin zioten ondasun eta baliabide naturalak ustiatzeari, eta inor ez zen alde mintzatu. Udalerrriak 62.369 biztanle ditu, eta erdiak baino gehiago adingabeak

dira. CPKren zeregin nagusietako bat da lurraldeak defendatzea megaproiektuetatik, horrelakoetan inbertitzen saiatzen baitira mehategi enpresak bezala berdin enpresa hidroelektrikoak eta nekazaritzako industriakoak. Lolita Chavez, gainera, emakume lider ezaguna da, eta komunitateko mugimendu feministaren prozesu kolektiboetan lagun egiten aritzen da. Hala, lurraren eremuko urraketak salatu ez ezik, emakumearen eremukoak ere salatzen ditu. Bestela esan, lurraren eta gorputzaren defentsan eta burujabetzan jardutea borroka paraleloak dira komunitateko feministentzat. Honela azaldu zuen 2016an elkarriketa batean:¹

«Lurraldeak espazio fisiko gisa ikusten ditugu, baina orobat ikusten ditugu historiaren adierazpen gisa eta artearen, kosmogoniaren eta gure ondarearen adierazpen gisa. Komunitatean gertatzen den oro, elementu kosmikoekin erlazionaturik ikusten dugu: airea, lurra, ura, mendiak, eguzkia, baita gizadia ere. Lurraldeaz dihardugunean, gure gorputzez ere badihardugu; sufrimendu gorriak pairatu ditugu gure larruan, gizonen eta patriarkatuen bidez [mendebaldekoak nahiz berezkoak] inposatzen diren botereekin,



Lolita Chavez (erdian), Kitxe Herrien Kontseiluko (CPK) kidea eta komunitateko feminista, osabide espiritualaz saio bat ematen, San Miguel Ixtahuacango emakume maien taldeari, non aurretik haietatik zortzi erreprimituak izan baitziren Marlin urre mehatzearen proiektuaren kontra egiteagatik; Goldcorp izeneko Kanadako mehatze konpainiaren proiektua, hain zuzen.

James Rodríguez 2011ko azaroa



Lolita Chavez (eskuinean) eta Sandra Moran, negarrez, Efraín Ríos Montt agintari izandakoa genozidioz kondenatu zutenean. Sandra Moran da lehen diputatua Guatemalako historian, bere burua feminista eta lesbiana deklaratu duena.

James Rodríguez 2013ko maiatza

kapitalismoarekin, jende zuriarekin eta arrazismoarekin. Gure gorputzak askatu behar ditugu zapalkuntza ugariatatik.

Lolita Chavezek eraso ugari jasan behar izan ditu, hala nola kriminalizazio prozesuak, beldurrarazteko ekintza eta atentatuak bai bere bizitzaren kontra eta bai bere lanaren kontra. 2017ko ekainean izan zen azkena: berari eta CPK-ko zenbait kideri gizon armatuek eraso egin zieten, noiz eta aurretik zegokien agintariei eskatu zieten zura

zeraman kamioi baten lizentziak berrikusteko. Basoen Institutu Nazionalaren arabera, Guatemalak bere basoen %20 inguru galdu du 24 urte honetan.²

¹ «Yo soy Lolita», 12. orria, 2016ko irailaren 9a. <https://www.pagina12.com.ar/diario/suplementos/los12/13-10856-2016-09-11.html>

² Guatemalako PBI. 2016. «La tala descontrolada en los bosques. Un riesgo para la sobrevivencia de las comunidades indígenas». Buletinaren 36. zk.



Lolita Chavez, 62-2010 udal akta irakurtzen; akta horrek egin zuen ofizial Kitxeko Santa Cruz udalerriko Buena Fe komunitatearen kontsulta ondasunen eta baliabide naturalen ustiapenaz. Azken emaitzek erakusten dute helduen %98k eman zuela botoa; 27.778 lagunek uko egin zioten ondasun eta baliabide naturalak ustiatzeari, eta inor ez zen alde mintzatu. Udalerriak 62.369 biztanle ditu, eta erdiak baino gehiago adingabeak dira.

James Rodríguez 2010eko urria

Pajajxit I, II eta III kantoietako kitxe herritar maiak, botoa ematen, Kitxeko Santa Cruz udalerrian, Buena Fe komunitatean ondasunen eta baliabide naturalen gainean egindako kontsultan.

James Rodríguez 2010eko urria



Emakumeen eskubideak eta LGBTIen eskubideak

EMAKUMEAREN AZTERGUNE-HONDURAS (CEM-H)
HONDURAS

Emakumeen bide baketsua
KOLONBIA

Arcoiris LGTB elkarte
HONDURAS

Khitam Saafin – Palestinako Emakume Batzordeen Batasuna (UPWC)
PALESTINA

Emakumearen Aztergunea-Honduras (CEM-H)

HONDURAS

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA giro latza dago Hondurasen. 18 ordutik behin, emakume bat hiltzen dute indarkeria matxistaren kausaz. Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak dio 2006 eta 2016 urteetan artean 4.787 emakume inguruk bizia galdu zutela zirkunstantzia bortitzetan. 2016. urtean bakarrik 466 feminizidio gertatu ziren.¹

Indarkeria matxista, diskriminazio eta bazterketa eta orobat emakumeen eskubideen urraketa orokorra maiz asko salatu dituzte emakume erakundeek eta feministek, baina Estatu agintariak eta gizarteak berak ez dituzte aski barneratu. Hain zuzen, maiz gertatzen da, indarkeria matxistaren gaineko estatistikak ematean, ez egotea indarkeria mota hori behar bezala islatua, zeren eta ez baitago erregistro osaturik, indarkeriaren ziklo horretan sartzen diren elementu guztiak agertuko dituenik. Hala, gertatzen da emakumeen kontrako urraketa asko iluntasunean gelditzen direla emakumeek beldurra diotelako gizartean dagoen estigmari edo erasotzaileei berei. Giro horretan ari da Emakumearen Aztergunea-Honduras (CEM-H). Erakunde feminista autonomoa da, emakumeen eskubideak sustatu eta defendatzen dituena askotariko indarkerietatik, diskriminazioetatik

eta zapalkuntza patriarkal, kapitalista eta arrazistetatik; horiek baitira emakumearen diskriminazio historikoa finkatu dutenak. CEM-H-ren lana da emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak sustatzea eta, orobat, eskubide sexualak eta ugalketa sustatzea eta indarkeria matxista ezabatzea. Landa eremuko emakume nekazarien eta indigenen eskubideen urraketa are sakonagoa da; izan ere, diskriminazio espezifikoa pairatzen dituzte beren genero, klase eta arraza direla medio. Eta diskriminazio egitura horiek egunerokoan ageri dira: hasi etxeko espazio intimotik eta Estatuaren erakundeetaraino.

Alde horretatik, aipatzekoa da Maria Santos Pazen kontakizuna —Intibucan emakumeen indarkeriaren kontrako Sareko kidea bera eta CEM-H-eko sustatzailea departamendu honetan—, emakume lenkek osasun sistema publikoan pairatzen dituzten eskubide-urraketen inguruan. «Badira klinikak non nekazari emakume indigenak oso gaizki tratatzen baitituzte; esaterako, sudurrak estaltzen dituzte emakumeen aurrean. Orduan, egunerokoa da emakumeek sufritzen duten indarkeria medikoa borrokatzea osasun etxeetan eta ospitale publikoetan», dio. CEM-H lanean

ari da, besteren artean, emakumeek duten osasun-eskubidea sustatzen. «Nekazariak, indigenak eta pobreak direlako, emakumeek ezin dute 10.000 lempira ordaindu [380 €], kontsulta, tratamendu eta analisi bategatik klinika pribatu batean. Horregatik hiltzen dira emakume asko minbizi mota anitzekin. Baina zerbitzua penagarria da ospitale publikoetan; horregatik emakumeak gehienetan ez dira joaten azterketak egitera», azaldu du Maria Santos Pazek.

Indarkeria matxista estatuko agintariei salatzen dietenean, maiz funtzionario publikoek eraso egiten diete. «Emakume batzuek deitu egiten digute laguntza eskatzeko, baita polizia etxera lagundu eta salaketa bat egiteko ere», dio Mariak, eta honela jarraitzen du: «Batzuetan gauez esnatzen naiz, agintarien aurrera lagun egiteko, eta elkarrekin joan behar izaten dugu; bestela, bakarrik joaten badira, ez dituzte hartzen, esanez —behin halaxe gertatu zen— *‘emakume honek ez du berotan lo egin nahi gizonarekin, horregatik doa hura salatzeraz’*. Horrelako diskriminazio eta bortizkeria prozesuei aurre egiteko, emakume antolatuek erresistentzia alternatibak prestatzen dituzte ekonomia feministatik. Hala ere, horien lana zailtasunez betea dago.

Emakume bat baba ereiten, Intibuca ondoan, Hondurasen.
Lurra izateko bidea da emakumeek eskatzen dituzten funtsezko eskubideetako bat.

— Francesca Volpi — 2017ko maiatza





Bi emakume, Togopalako komunitatean irina pisatzen, Intibucako udalerrian.

— Francesca Volpi — 2017ko maiatza



Maria, bere etxean, semearekin, ereitera atera aurretik. CEM-H-ek lagun egiten dio Mariari, Cantarranasko udalerrian, Tegucigalpa kanpoaldean.

— Francesca Volpi — 2017ko maiatza

Emakumeen gizonek mehatxatu egiten dituzte maiz lagun egiten ari diren defendatzaileak, eta estatuko agintariek kriminalizatu egiten dituzte. 2015eko azaroan, Emakumearen Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Egunean, polizia eta militar taldeek jo egin zituzten CEM-H-eko 40 bat kide Presidentearen Etxearen kanpoaldean. CEM-H-eko zuzendari Suyapa Martinezek egin zuen salaketa, eta esan zuen Estatuko segurtasun-indarrek emakumeetako batzuk atxilotu egin zituztela.

Zailtasunak zailtasun, defendatzaileek bizimodu gisa aldarrikatzen dute beren lana. Honela kontatzen du Maria Santos Pazek: «Nire bizipenetik, beti izan naiz emakumeen eskubideen defendatzailea, eskolatik eta gaztetatik. Arriskutan sartzen naiz, Hondurasen ez baitituzte onartzen giza eskubideen defendatzaileak. Baina bizipen ona ere izan da, zeren eta aukera

izan baitut gure giza eskubideez ikasi nahi duten emakumeen eustorma izateko». Emakume lider lenkaren borrokatzeko arrazoia da emakumeek beren txokoetatik eta isiltasunetik ateratzeko modua izatea.

¹ CONADEH (2017). «2016ko urteko txostena» <http://conadeh.hn/wp-content/uploads/2017/04/Informe-Anual-2016.pdf>



— Francesca Volpi — 2017ko maiatza

Emakumeen bide baketsua

KOLONBIA

MUGIMENDU FEMINISTA BAT DA EMAKUMEEN BIDE BAKETSUA, lanean diharduena Kolonbiako gatazka armatua negoziazio bidez tramitatzearen alde; horrekin batera, gerrak emakumeen bizian izan duen eragina ikusarazi nahi du, eta Egia, Justizia, Erreparazioa eskatzearen eta norbanakoaren eta kolektiboaren memoria historikoa berreraikitzearen alde ari da.

Bere burua mugimendu baketsutzat eta antimilitaristatzat du, eta Indarkeriarik Gabeko etika bat eraikitzearen alde egiten du, non oinarrizko printzipiotzat baititu justizia, bakea, berdintasuna, autonomia, askatasuna eta bestearen ezagutza. 1996an sortu zen jendaurrean, erantzun bat emateko Kolonbiako gatazka eremuetan —bai landagunean eta bai hirian— emakumeek pairatzen duten indarkeria-egoera larriari. Mugimendua lanean aritzen da, emakumeak gerrako biktima gisa agerrarazteko eta adierazteko ez eze, baita gizarteko eta politikako ekintzaile gisa ere Bakea negoziatzeko eta eraikitzeko prozesuan. Eratu zenetik, bakearen aldeko herritarren mugimendu gero eta handiagoaren parte da Emakumeen Bide Baketsua; izan ere, hemengo gizarteak esan du ez duela nahi gerrarik. Bide Baketsuan ari dira emakumeen 300 erakunde eta taldetik gora, bederatzi eskualdetan: Antioquia, Bogota, Bolivar, Cauca, Choco, Putumayo, Risaralda, Santander eta Cauca Harana.

Bideko emakumeak gizarteko sektore orotakoak dira: nekazariak, indigenak, beltzak, gazteak, profesionalak, intelektualak eta ikasleak. Batez ere herri sektoreek

osatzen dute horko oinarri soziala; seguru asko, gatazka armatua erarik bortitzenean ikusi duten sektorekoak izango dira. Denak dira emakumeak, gerrak sorrarazten duen isiltasuna eta beldur-zikloa haustea erabaki dutenak. Mugimendu sozialak Bidearen bitartez erakusten dio Kolonbiako gizarteari gerrarekin desadostasunean dela.

Arcoiris LGTB elkarteak

HONDURAS

HONDURASEN aniztasun sexuala ez dago delitu gisa tipifikatua; aldiz, munduko beste 70 herrialdetan, behintzat, bai da zigorgarria, eta, zenbaitetan, heriotza zigorra ere ezartzen dute. Hala ere, Hondurasen, LGBTI komunitateko pertsonak maiz jasan dituzte agintarien gehiegikeriak, legez kanpoko atxilotzeak, jazarpena, eraso sexualak, familia barneko indarkeria, estigmatizazioak, hilketa mehatxuak, hilketak eta erasoak, hala nola partikularrenak, elizenak, militarrenak eta Estatuko segurtasun-agenteenak, zergatik eta hobespen sexuala adierazteagatik.

Homofobia eta transfobia era askotara eta bizimodu nazionalaren alderdi askotarikoetan azaltzen dira, eta, hala, desorekan eta bazterkerian gelditzen da LGBTI komunitatea heterosexualek aldean, eta horrek ondorioak dakartza haien bizitza sozialean, ekonomikoan eta emozionalean. Familiaren nukleotik eskolaraino eta lan-eremuraino, araututa ez dauden nortasun sexualak eta generoa dituztenek diskriminazio-prozesu gogorrek sufritzen dituzte. Testuinguru horri aurre egiteko, LGBTI komunitatea antolatu egin da Hondurasen. Hasieran ezkutuan sortu ziren, baina denborarekin indar handiagoa hartuz joan dira kaleko mobilizazioei esker. Antolamendu-indar eta ikusgarritasun horri

esker, LGBTI komunitateak aurrerapenak egin ditu ezagutza sozialari begira.

2003an finkatua, LGTB Arcoiris elkarteak lanean ari da Hondurasko aniztasun sexualaren eta sexu-generikoaren aldeko giza eskubideak babesten eta sustatzen; orobat lantzen du osasun integrala sustatzea, eta politikan, ikerketan eta zabalkuntzan eragitea. «Homofobiaren eta transfobiaren arazoa erraldoia da, eta irmo-irmo desafiatu beharra dago», esan du Arcoiriseko koordinatzaileak, Donny Reyesek. «Gure ustez, gobernuak agintariei borondate politikoa falta dute eta kristauen moral bikoitzak ez du laguntzen. Eta, horrela, arriskuan jartzen da Hondurasen LGBTI komunitatekoen bizia. Egunerokoan gorrotoa eta diskriminazioa sustatzen dituzten komunikabideak ere, gobernuaren interes faltarekin batera, faktore gisa konbinatzen dira beste faktore batzuekin, eta konbinazio ikaragarria osatzen dute LGBTI komunitatearenganako.

Halaxe da; LGBTI komunitatearen eskubideak defendatzen dituztenek indarkeria politikoa dagoen testuinguru batean bizi behar dute, eta arriskuak izaten dituzte. 2015eko ekainetik 2016ko martxora, Arcoiriseko sei kide hil egin zituzten zeregin horretan aritzeagatik.¹ Beste asko izutu egin

nahi izan dituzte; jazarri dituzte, eraso fisikoak jasan dituzte, eta herrialdetik ihes egin behar izan dute. 2017ko apirilaren 4an, transen eskubideen defendatzailea, 29 urtekoa, Muñecas de Arcoiris izeneko kolektiboko kidea —Arcoiris Elkartearen barnekoa—, hila azaldu zen Tegucigalpa inguruetan. Haren gorpuak tortura zantzu nabarmenak zituen.

Giza Eskubideen Batzorde Nazionalaren txosten batean² datorrenez, 2008tik 200 LGBTI baino gehiago hil dituzte bortizki Hondurasen, eta horietatik %92 zigorturik gabe daude. Azken urteetan, ugaritu egin da indarkeria; batez ere, 2009. urtean kolpe militarra izan zenetik: 2008an, sexu joera dela medio edo genero identitatea dela medio, lau lagun hil zituzten; 2009an, berriz, 24 kasu gertatu ziren, eta 60 inguru 2014tik 2016ra.

Horrez gain, Arcoirisek segurtasun gorabehera ugari jaso ditu bere kideenganako, hala nola zainketa, jazarpena, ausazko atxilotetak, erasoak, lapurretak, mehatxuak, eraso sexualak eta hilketa. LGBTIko beste aktibista batzuk indarrez kanporatuak izan dira, behar bezala epaitu gabeak, ospe txarra eman zaie, desagerrarazpenak jasan dituzte eta elkartzeko eskubidea murriztu diete.

Giro horretan, elkartearen eginkizuna berebizikoa da. Horko kideetako batek

Ibilaldia LGBTI-eskubideen defentsan, Tegucigalpan

— Francesca Volpi — 2017ko maiatza



Francesca Volpi 2017ko maiatza

dioenez, «erakunde honek norbera onartzen laguntzen du, eta norberaren burua defendatzen. Erakundetik ateratzean, beste mentalitate batekin joaten dira. Batek dakienean zein diren bere eskubideak, orduan tresna egokiak dauzka LGBT komunitatetik kanpo dagoen norbait sentsibilizatzeko, bai lanean, bai eskolan eta bai etxean, eta zer garen onartuak izateko.

¹ «Asesinan a defensor de derechos LGBTI hondureño», 2016ko ekainaren 8a, Front Line Defenders <https://www.frontlinedefenders.org/es/case/case-history-rene-martinez>

² CONADEH (2017). «2016ko urteko txostena» <http://conadeh.hn/wp-content/uploads/2017/04/Informe-Anual-2016.pdf>

Francesca Volpi Mayo 2017



Francesca Volpi 2017ko maiatza

Francesca Volpi 2017ko maiatza

Khitam Saafin – Palestinako Emakume Batzordeen Batasuna (UPWC)

PALESTINA



Nuria González



Mundubateko artxiboa

1980. URTEAN SORTU ZEN UPWC, helburu bikoitzarekin: emakumeak ahalduentzen laguntzeko eta Palestina Israelgo okupazio militarretik askatzeko borrokan laguntzeko. 30 urtean, makina bat ekimen landu du, zertarako eta generoa dela-eta diskriminaziorik gabeko gizarte bidezkoago bat eratzeko. UPWCn 2.000 emakume baino gehiago biltzen dira, eta palestinako lurralde okupatuetakozortzi gobernazioetan dago.

Horko presidente Khitam Saafin lider ezaguna da Palestinako emakumeen eskubideen aldeko lanean, bai mundu arabiarrean eta bai nazioartean. Behin baino

gehiagotan izan da Munduko Foro Sozialean, eta hor, askapen nazional eta sozialaren alde diharduten mundu osoko emakumeen borroka elkartu izan du. 2017ko uztailean, Khitam atxilotu egin zuten, eta espetxera igorri zuten Israelgo agintariak, zergatik eta Israelgo administrazioak terroristatzat dituen erakundeetan parte hartu izanagatik. Preso dagoen beste palestinarrak bat gehiago da Khitam, gaur egun, beste 6.200 lagunekin batean.

Kitham administrazio-atxiloketa bategatik dago preso. Israelgo prozeduren arabera, horrelako atxilotetetan sei hilabete ere egon daiteke bat espetxean, “argitu gabeko”

frogetan oinarrituta. Israelgo agintariak segurtasunagatik egiten dutela diote; alabaina, giza eskubideak defendatzen dituzten taldeek diote Israelgo agintariak nahi beste denbora eduki ditzaketela palestinarrak preso, haien atxiloketa justifika dezakeen inolako ebidentziarik gabe.

UPWCk esaten du administrazioak Saafin atxilotu izana bera zigortzeko dela, zergatik eta giza eskubideen alde egiten duen lanagatik eta Israelek Palestinako herritar zibilen eta presoen aurka egiten dituen urraketak nazioartean salatze hartua duen zereginagatik.

Migrazioa eta mugimendu askatasuna

Hermanos en el Camino migratzaileen aterpea

MEXIKO

Hermanos en el Camino migratzaileen aterpea

MEXIKO

HAREN KOKAPEN GEOGRAGIKOA DELA BIDE, Mexiko pasabide inportantea da Estatu Batuetara edo Kanadara joan nahi duten Erdialdeko Amerikako migratzaileentzat, karibetarrentzat eta Hego Amerikakoentzat. Dioetenez, agiririk ez duten 400.000 lagun inguru pasatzen dira herrialdetik urtero. Migrazio bideetan, pasaeran doazenak makina bat bortizkeria mota eta giza eskubideen urraketa jasan behar dituzte: ohikoak dira bahiketa masiboak, estortsioa, gehiegikeria sexualak, hilketak eta desagertpenak.

Frontera Sur planean, AEBen laguntza ekonomikorekin, Guatemalako muga militarizatu dute, zertarako eta Erdialdeko Amerikako migrazioari eusteko, iparraldeko mugara iritsi aurretik. Horren ondorioz, migratzaile askok bideak aldatu dituzte, eta aterpeetatik urrun gelditzen diren tokietatik hasi dira joaten, krimen antolatuen menturan gelditurik. 2010ean, Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak (CNDH) 11.333 migratzailearen bahiketak erregistratu zituen.²

Testuinguru horretan, Hermanos en el Camino migratzaileen aterpea, Ixtepex hirian dagoena, Oaxacako estatuan, giza laguntza ematen aritzen da —janaria, atsedena eta babes psikologikoa— Mexiko zeharkatzen

duten migratzaileei. Migratzaileek aurkitzen duten indarkeria giroa dela eta, aholkularitza eta babes legala ere ematen ditu. Aterpetxera heltzen direnen %30-50 tortura fisiko edo psikologikoren batekin heltzen omen da.³

«Delinkuentzia antolatuak prezioa ipini dio migratzaileei; merkantzia bihurtu ditu, eta haiek salerosten ari da», azaldu zuen Aita Alejandro Solalindek, Migratzaileen Aterpeko zuzendariak, 2010ean egindako elkarrizketan batean.⁴

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanoa ere berdintsu mintzatu zen, 2013ko txosten batean; txosten hartan dioenez, migrazioa da Mexikoko krimen antolatuaren diru-iturri printzipaletako bat. «Bateko, migratzaileak bahitzetik ateratzen diren etekin ekonomikoak direla, besteko gizakien trukea dela eta besteko migratzaileen legez kanpoko trafikoa dela, estatu-agintarien eta kriminal antolatuen kolusioaren ondorioz etorri dira giza eskubideen gaineko delitu eta urraketa horietako asko», dakar txostenak.⁵

2008tik, Aita Solalindek eta Hermanos en el Camino migratzaileen aterpean diharduen taldeak migratzaileen bahiketak salatu izan dituzte, bai eta ere udalerrietako, estatuko eta federazioetako funtzionario ustelen kasu asko. Horren ondorioz, ospe txarra zabaldu diete

Aita Alejandro Solalinde, Hermanos en el Camino migratzaileen aterpeko zuzendaria.

— Ricardo Ramírez Arriola





Migrantes en ruta por Ixtepec, estado de Oaxaca.

— Ricardo Ramírez Arriola



aterpekoei; jazarpenak jasan dituzte, eraso fisikoak, eta, are, hilketa mehatxuak. Hori dela eta, 2010eko apirilaren 23an, Batzorde Interamerikanoak kautelazko neurriak eman zizkion Aita Solalinderi, haren bizia eta osotasun fisikoa zaintzeko. «Gure eskaerak direla eta, inportanteena da ez da bakarrik Mexikoko Estatuak giza laguntzari errespetua adieraztea publikoki, baizik eta baita giza laguntza kriminalizatzeari uztea»,⁶ esan du zentroko zuzendariak. Baina aitortpenak ere jaso dituzte giza eskubideen defentsan

migratzaileen alde egindako lanagatik. Aita Solalindek Giza Eskubideen Sari Nazionala jaso zuen 2012. urtean, eta 2017an, Bakearen Nobela sarirako proposatua izan da.

Alberto Donis, Guatemalako migratzailea, Hermanos en el Camino migratzaileen aterpeko lantaldearen parte izan zen. Duela hiru hilabete hil zen, argitalpen hau argitaratu aurretik. Lerro hauetan, omenaldi xalo bat egin nahi diogu migratzaileen eskubideen defentsan egindako borroka nekaezinagatik.

¹ AEE/CIDH, 2013. «Derechos humanos de los migrantes y otras personas en el contexto de la movilidad humana en México». <http://www.oas.org/es/cidh/migrantes/docs/pdf/informe-migrantes-mexico-2013.pdf>

² CNDH, 2011. «Informe especial sobre secuestro de migrantes en México». http://www.cndh.org.mx/sites/all/doc/Informes/Especiales/2011_sec_migrantes.pdf

³ PBI-México, 2010. «Padre Solalinde: El Estado mexicano debe dejar de criminalizar la ayuda humanitaria», Entrevistas, 22. zk. http://www.pbi-mexico.org/fileadmin/user_files/projects/mexico/images/Entrevista22_Solalinde.pdf

⁴ PBI-Mexico, 2010. «Padre Solalinde: El Estado mexicano debe dejar de criminalizar la ayuda humanitaria», Entrevistas, 22. zk. http://www.pbi-mexico.org/fileadmin/user_files/projects/mexico/images/Entrevista22_Solalinde.pdf

⁵ AEE/CIDH, 2013. «Derechos humanos de los migrantes y otras personas en el contexto de la movilidad humana en México». <http://www.oas.org/es/cidh/migrantes/docs/pdf/informe-migrantes-mexico-2013.pdf>

⁶ PBI-Mexico, 2010. «Padre Solalinde: El Estado mexicano debe dejar de criminalizar la ayuda humanitaria», Entrevistas, 22. zk. http://www.pbi-mexico.org/fileadmin/user_files/projects/mexico/images/Entrevista22_Solalinde.pdf

Adierazpen eta informazio askatasuna

Dina Meza

HONDURAS



Dina Meza

HONDURAS

PRENTSA ASKATASUNAREN MUNDUKO INDIZEAREN ARABERA —Mugarik Gabeko Erreportariak egina—, Honduras da munduan den herrialderik arriskutsuenetako bat kazetaritzan aritzeko; 140. postuan da 180 herrialdeko zerrenda batean.¹ Oso kezkarria da nola dauden 2009an Estatu kolpea izan zenetik. Ordutik, 60 kazetari eta komunikabidetako langile hil dituzte Hondurasen. Esan gabe doa, kasuen %90etan ez dela izan zigorrik.² Egundaino, indarkeriazko olatu gogor batek mehatxatzen dituztela bizi dira komunikabideak, kazetariak eta aktibistak herrialdean. Kazetari ezaguna eta independentea da Dina Meza Hondurasen. Adierazpen eta informazio askatasunaren defendatzailea da, eta Hondurasko PEN zentroko presidentea; zentro horren helburua da pentsamenduaren transmisio librea defendatzea eta zentsurari eta errepresioari gogor egitea. Giza eskubideen ikerkuntza eta salaketa lan inportanteak egin ditu; esaterako, Aguan Behereko nekazari komunitateen eta zenbait enpresa eta lurjaberen lur-gatazkaren kasua. Gaur egun, errepresioa eta ustelkeria salatzen dihardu Pasos de Animal Grande egunkari digitalean. Gainera, Demokraziaren eta Giza Eskubideen Aldeko Elkartea eratu du: kazetariei eta komunikatzaile sozialei lagun

egite legala egiteko, izan ere errepresioa pairatzen baitute beren lan jardunagatik.

Dina Meza lantzen ari den azken kasuan, zenbait ikasle atxilotu zituzten polizia indarrek; ikasle horiek protesta batean ari ziren 2015ean arau akademikoen kontra eta protesta sozialaren kriminalizazioaren kontra Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoan. Ordutik, ikasle horiek estigmatizatzen zituzten zigor kanpaina batean murgildu dituzte, eta ez dira behar bezalako prozesu bat jasotzen ari. 2017ko ekainean, usurpazio delitua egotzi zieten hiru gazteei. Esan beharra dago 2014 eta 2016 artean Hondurasko Ministerio Publikoak eta Unibertsitate Nazional Autonomoak prozedura penalak eta administratibo zigortzaileak abiatu dituztela ikasle protestetan parte hartu duten 110 pertsonaren kontra.³ Bestalde, Dina Meza atsedetik gabe aritu izan da Hondurasko kazetariei egiten zaien errepresio gero eta handiagoa salatzeko; eta errepresioarekin batera doaz adierazpen askatasunerako espazioak ixtea eta giza eskubideak oro har hondatzea. Francesca Volpi 2017ko maiatza

«Adierazpen askatasuna eta informazio askatasuna funtsezko eskubideak dira, gainerako eskubide guztien konexioa



— Francesca Volpi — 2017ko maiatza



— Francesca Volpi — 2017ko maiatza

mantentzen dutenak. Adierazpen askatasun txikiko herrialde batean, nahitaez izango da indarkeria», esan du.

Egiten duen lanaren ondorioz, behin baino saiatu dira hura beldurrarazten, mehatxu sexualak eta familia jazarpena barne. Gertaera horiek direla medio, etxetz aldatu behar izan zuen, eta, are, herrialdetik alde egin behar izan zuen 2013. urtean zenbait hilabetez, honako hau idatzi zuenean: «Izuaren Erreinua» –«Reign of Terror»–. Txosten bat da, sakontasunez deskribatzen duena Hondurasko kazetariei egiten zaizkien mehatxuak.

«Pistola bat kopetan duzula idaztea bezala da kazetaritza egitea halako zigorgabetasun maila handia dagoen herrialde honetan

non ez baitira ikertzen kazetarien kontrako krimenak, mehatxuak, jazarpena eta bestelako errepresio moduak ere. Hondurasen, adierazpen askatasuna erasoak jasaten ari da, eta kazetariak hiltzea laidogarria da», esan zuen kazetariak Batzorde Interamerikanoren entzutegi batean, 2014ko martxoan.⁴

Dina Mezak Amnesty International UK-ren sari berezia jaso zuen, 2007. urtean, arriskuan diren kazetariei ematen dena, eta 2014an Oxfam Novib/PEN Internationalen Adierazpen Askatasunaren saria eman zioten.

² CONADEH (2017). «2016ko urteko txostena» <http://conadeh.hn/wp-content/uploads/2017/04/Informe-Anual-2016.pdf>

³ «Criminalización de personas que defienden los derechos en Honduras», Giza Eskubideen Erdialdeko Amerikako Zainketarako eta Analisisirako Eskualde Taldearen komunikatua, 2017ko ekaina.

⁴ «Impunidad en Honduras: escritores de PEN testifica ante la Comisión Interamericana de Derechos Humanos», PEN Internacional, 2014ko martxoaren 26a. <http://www.pen-international.org/newsitems/impunidad-en-honduras-escritores-de-pen-testifica-ante-la-comision-interamericana-de-derechos-humanos/?lang=es&print=print>

¹ «La libertad de prensa en el mundo en el 2017», 2017ko apirilaren 26a, Mugarik Gabek Erreportariak, <http://www.rsj-es.org/grandes-citas/clasificacion-por-paises/>

Lan eskubideak

Pasta de Conchos Familia Antolakundea

MEXIKO

Cristina Auerbach, Pasta de Conchos Familia Antolakundeko zuzendaria

— Nicky Milne Thomson

Pasta de Conchos Familia Antolakundea

MEXIKO

PASTA DE CONCHOS FAMILIA ANTOLAKUNDEKO emakumeek zapiak brodatzen dituzte mehatzeetan hildako senideen memoriari bizirik eusteko. Historia berreskuratzeko brodatzen dute, ahanzturan ez galtzeko besteak beste 2006ko otsailaren 19an gertatu zena. Goiz hartan, Pasta de Conchoseko 8. unitateko ikatz-mehatzean —San Juan Sabinas Coahuilako udalerrian dago, eta Grupo Mexico enpresarena da—, leherketa handi bat izan zen, eta 65 mehatzari harrapaturik gelditu ziren. Istripu haren ondorioz eratu zuten biktimen senideek Pasta de Conchos Familia Antolakundea, Mexikoko Gobernu presionatzeko gorpuk istriputik atera zitzaizkien kalte-ordainak eman zitzaizkien eta erantzuleak epaitu zitzaizkien. Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanora eraman du erakundeak Pasta de Conchosen kasua, baita Lanaren Nazioarteko Antolakundera ere. Gaur arte, bi gorpu bakarrik erreskatatu dituzte.

Baina mehatzariak hil eta hil ari zirenean oraindik ere. «Istripu bat izan bazen, zergatik ari dira oraindik hiltzen?», hasi zirenean galdetzen antolakundeko kideak, «zer ari da gertatzen?». Orduan hasi zen erakundea bere borroka eremua zabaltzen, eta eskualdeko mehatzarien lan baldintza

txarrak salatzen. Neurri prebentibo gisa, lan istripuak dokumentatzen, ikuskatzen eta salatzen hasi zirenean, eta orobat mehatzeetako langileen segurtasun baldintzak Coahuillako ikatz eremuan. «Zorigaitza heldu aurretik iritsi beharra zegoen»,² gogorarazi du Cristina Auerbachek, antolakundeko zuzendaria. Estrategiak arrakasta izan zuen. Segimendu eta salaketa lan horri esker, lan istripuak asko gutxitu dira eskualdean. Zuzendaria dioenez, hildakoen ehunekoa %97 beheratu da.³ Bestalde, antolakundeak babes ematen die mehatze proiektuek Coahuillako ingurumenean duten eraginaren aurka jartzeko diren komunitateei; hala, giza eskubideen urraketak salatzen dituzte, eta berdin mehatzaritzarekin erlazionatuta dauden eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen eta ingurumenaren arlokoen urraketak ere. Dena den, zilegitasunez giza eskubideen defentsan egindako lanak indarkeria eta arrisku handiak ekarri dizkie. Beren lana dela medio, askotan mehatxatu eta jazarri diete erakundeko kideei. Cristina Auerbach behin eta berriz izan da jazarria eta fisikoki eraso, eta ospe txarra eman diote, zergatik eta mehatze industriako neglijentzia, ustelkeria eta krimen antolatuen eragina azalarazteagatik. 2007an



Pasta de Conchos Familia Antolakundeko emakumeek zapiak brodatzen dituzte mehatzeetan hildako senideen memoriari bizirik eusteko.

— Nicky Milne Thomson

jo egin zuten. 2008an, atentatu bat egin zioten hiltzeko helburuarekin. Azken urteetan, mehatzeetako enpresek kexak ipini dituzte auzitegietan Cristina Auerbachen kontra, eta erakundeko gainerako kideen kontra ere bai, jabetza kendu izanaren eta bestelako aitzakiekin. Gertaera horiek adierazten dute kriminalizatzeko gogoia dagoela. 2013tik, arrisku larrian dagoela eta, Babes Mekanismo Federalak giza eskubideen defendatzaileei eta kazetariei ematen dizkien babes-neurriekin da.

Hala eta guztiz ere, antolakundeko kideek jarraitu dute justiziaren, egiaren eta giza eskubideen sustapenean betetzen duten lana aldarrikatzen. Esmeralda Saldaña komunitateko lider eta erakundeko kideak ez

du dudarik egiten bere borrokaren zergatiak azaltzen dituenean. «Giro hobe bat nahi dugu; herri hobea izan, mina konpontzen dakiena, eta umeei parke bat izatea non jolastu izateko. Eta oroz gain bakean bizi nahi dugu», esan du.⁴

¹ «Pasta de Conchos: La lucha por la justicia», Jack Mead (zuz.), bideoa: 09:45 min. <https://vimeo.com/201664723>

² «Pasta de Conchos: La lucha por la justicia», Jack Mead (zuz.), bideoa: 09:45 min. <https://vimeo.com/201664723>

³ ««Pasta de Conchos: La lucha por la justicia», Jack Mead (zuz.), bideoa: 09:45 min. <https://vimeo.com/201664723>

⁴ Ibid.



Pasta de Conchos Familia Antolakundeko emakumeek brodatutako zapiak.

— Nicky Milne Thomson



Bakezko komunitate ekimenak

Eremu Humanitarioak Cacarican
KOLONBIA

Puente Nayero Eremu Humanitarioa, Buenaventura
KOLONBIA

San Jose Apartadoko Bake Komunitatea
KOLONBIA

Eremu Humanitarioak Cacarican

KOLONBIA

Cacaricako Giza Eremuak babes estrategia baketsuak dira, komunitateek sortuak, gatazka armatuaren indarkeriari aurre egiteko.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI

PAZ

CACARICAKO IBARREAN DAUDEN AFRIKARREN ONDORENGOAK, Chocoko departamenduan, ez dira ahazten 1997ko otsail hartaz. Paramilitarrak azaldu ziren, erarik ankerreanean, Marino Lopez nekazaria harrapatu, eta, lepoa mozturik, futbolearen aritu ziren haren buruarekin komunitateko zenbait kideren aurrean. Handik ehunka metro batzuetara zen armadako tropa bat.

Genesi operazioaren harira gertatu ziren kontu haiek. Armadaren eta eremuko indar armatu eta polizia nazionalaren parte-hartzearekin eta Cordobako eta Urabako Nekazarien Autodefentsarako talde paramilitarrekin koordinatuta. Operazio militar eta paramilitar hartan, 70 krimenetik gora gertatu ziren, hileketen zein desagerrarazpenen bidez.¹ Horren ondorioz, nahitaez desplazatu behar izan zuten Cacaricako arroa osatzen duten 23 komunitateetako 3.500 lagun inguruk.²

Urabako eskualdera edo Panamako mugara ihes egin ez zutenak Turboko udalerriko koliseora bildu ziren, eta hantxe bizi izan ziren hiru urtez muturreko baldintzetan. Jan eta lo txandan egiten zuten. Baina erresistentziaren bidea hasi besterik ez zen egin, eta, Turbon urteak pasatuta eta prozesu luzea bihurtuta, Cacaricako komunitate desplazatuak antolatzen hasi ziren.

Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordearen (CIJP) babesarekin, Beltzen Komunitatearen Kontseilua osatu zuten lehenik. 1997 amaieran, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanoak Estatuari kautelazko neurriak ezartzeko eskatu zion desplazatuentzat, talde paramilitarren

mehatxuetatik, seinalatzeetatik eta jazarpenetatik babestuak izan zitezen.

1999an, Comunidades de Autodeterminación Vida y Dignidad (Cavida) erakundea sortu zuten. Andres Pastranaren gobernuarekin negoziatu zituzten beren lurraldera itzultzeko baldintzak, eta lanean aritu ziren beste leku batzuetara desplazatu ziren senideak Turbora alda zitzaizten, denak elkarrekin itzultzen hasteko.

Urte horretan bertan, aurreneko esplorazio misio bat egin zuten eremura, oraindik ere gatazka armatuari ari diren jendeek kontrolatua, eta geroago Nueva Vida Eremu Humanitarioa izango zen lurraldera itzuli ziren. Nahiz eta antzinako komunitateak elizaren eta eskolaren hondar batzuk baino ez ziren gelditu, eremua garbitu, eta haziak berreskuratu zituzten —arroza, yuca eta artoa—, baita erein ere, herritarrak itzultzerako uzta izan zezaten. Hala sortu ziren Nueva Vida eta Nueva Esperanza de Dios eremu humanitarioak, espazio kolektibo babestuak, gatazkan ziren eremuetako herritar zibilek soilik erabiltzeko, eta debekatua gelditu zitzaizkien legezko nahiz legeaz kanpoko jende armatuei leku haietara sartzea. Nueva Vida Eremu Humanitarioa izan zen era horretako lehen ekimena Kolonbian. 1999an, lan luze baten ondoren, lortu zuten Estatuak Cacaricako komunitateak aitortzea honako titulua honekin: 103.561 hektareako kolektiboa. Tituluaren lagapena 1999ko abenduan gauzatu zen, Turboko koliseoan. Azkenik, 2000. urtean Cacaricara itzuli ahal izan ziren.

Urte batzuen buruan, 2008ko irailean, Rito Alejo del Río jenerala atxilotu zuten,



Cacaricako Giza Eremuak babes estrategia baketsuak dira, komunitateek sortuak, gatazka armatuaren indarkeriari aurre egiteko.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI

izan dira, baina esperantza dugu egunen batean Gobernuak entzungo digula eta ez gara limosna eskatzen ari, merezi duguna baizik; gurea dena, bere orduan kendu zigutena nahi dugu. Guri itzultzea nahi dugu, eta ez den-dena itzultzea, baizik eta galdu genuena berriz eraikitzeke posibilitatea».

¹ «VIII Visita de la Comisión Ética de la Verdad», Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordea, 2010eko ekainaren 15a. <http://justiciaypazcolombia.com/VIII-Visita-de-la-Comision-Etica>

² Defensoria del Pueblo. 2002. «Resolución defensorial No.025. Sobre las Violaciones Masivas de Derechos Humanos y Desplazamiento Forzado en la Región del Bajo Atrato Chocoano», Bogota, 2002ko urria. http://www.acnur.org/t3/uploads/media/COL_2464.pdf?view=1

³ «Hoy, de nuevo, tenemos el territorio invadido de paramilitares», Kolonbiako PBI, 2017ko otsailaren 16a. <https://pbicolombiablog.org/2017/02/16/hoy-de-nuevo-tenemos-el-territorio-invadido-de-paramilitares/>



Cacaricako komunitateak, beren borroka eta erresistentzia prozesua gogoratzen, desplazatzera behartu zituztenetik hogei urtera.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Cacaricako Eremu Humanitarioei esker, komunitateek beren bizimodua berreskuratu dute lurraldean, eta aurre egin diote gatazka armatuaren dinamikek eragindako indarkeriari.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Haurrak, jolasean, Nueva Esperanza de Diosen, Cacaricako arroan.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Horma-irudi bat, Nueva Esperanza de Dios Eremu Humanitarioko etxe batean.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI

XVII. brigadako komandantea eta *Genesi operazioaren* arduraduna, eta, lau urteren buruan, Kolonbiako justiziak 25 urtera kondenatu zuen egindako delituengatik. 2013ko abenduaren 27an, Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanoak zigortu egin zuen Kolonbiako Estatua 1997ko desplazamendu masiboan izan zuen erantzukizunagatik; ez zituen behar bezala babestu Cacaricako herritarrak; talde paramilitarrekin kolaboratu zuen, eta Marino Lopez hil zuen. Estatua behartu egin zuten Cacaricako herritarrentzat babes-mekanismoak ezartzera, hura lehengoratzera eta erreparazioa ematera.

Epaia epai eta lortuak lortu, komunitateen irudiz, ez dira iritsi segurtasun-mekanismoak ezartzeko politikak. Eta gaur egun, herritarrek jarraitzen dute mehatxuak, erasoak, segimenduak, zainketak eta irainak jasotzen. Izan ere, Cacaricako Arroan, makina bat interes ekonomiko eta geopolitiko

elkartzen da. Bioaniztasun handia dago Ozeano Bareak eta Karibe itsasoak muga egiten duten eremuan, eta arro horretako komunitateek aurre egin behar diote paramilitarren interesei, enpresa nazionalenei eta nazioz gaidikoenei, eta Estatuaren beraren interesei. 2017ko otsailean, jendea desplazatzera behar zutenetik 20 urte igarorik, Cacaricako komunitateak berriz elkartu ziren beren borroka eta erresistentzia prozesua gogoratzeko. Honela zioen Marco Fidel Velasquezek, Cavida erakundeko kideetako batek, elkarrizketa batean:³ «Hogeigarren urte honetan, desplazatuak izan ginela gogoratzen dugu, hogei urte erresistentzia betean hainbeste ezbeharren erdian. Min handiko hogei urte izan dira, baina esperantza dugu egunen batean pozak hartuko gaituela. Zigorgabetasun handiko hogei urte izan dira, baina esperantza dugu egunen batean justizia gailenduko dela. Miseria handiko hogei urte

Puente Nayero Eremu Humanitarioa, Buenaventura

KOLONBIA

Puente Nayero Eremu Humanitarioaren sorrerari esker, herritarrek beren lurraldean bizitzen jarraitu ahal izan dute, nahiz eta setioak jasan gatazka armatuaren eta indarkeriaren dinamikak direla medio.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI

Buenaventurako portu-hiriaren itsas bazterretan, zurezkoak dira auzoetako etxeak, eta pilote luze batzuen gainean egoten dira. Auzo horietako batean dago Puente Nayero kalea, La Playita arrantziale- auzoan. Auzokideak zurezko etxeak eraikitzen hasi ziren uraren gainean, itsasoari tokia kendu nahian bezala. Auzoa handitu ahala, zubiak, kaleak eta pasabideak eraiki zituzten, etxeak elkarrekin konektatzeko.

2001. urtean, horra ziren ehunka lagun, Naya ibaitik ihesi. Nayan, talde paramilitarrek 30 lagun hil eta 3.000 lagunetik gora desplazatu zituzten. Geroztik, Nayako hondamena pairatu zutenek izena ipini zioten beren kaleetako bati: Puente de los Nayeros (Nayatarren zubia). Esan daiteke, hortaz, izen horrekin auzoak irarrita duela bere herritarren historia gogorra: bortizkeriaz eta lapurretez betetako historia bat, eta, aldi berean, irauteko asmatutako estrategien historia bat, non jendeak bere biziarekin aurrera jo nahi duen itsasoari hartutako lurralde horretan. Kolonbiak Pazifikoko aldetik duen leku geoestrategiko batean dago Buenaventura, eta urteak dira bertako herritarrak giza eskubideen urraketa sistematikoak pairatzen ari direla. Talde armatu legalak eta legez kanpokoak lurraldearen borrokan jardun dira, eta bidean utzi dute giza tragedia bat, munduan den indarkeria indizirik handienetako bat. 2005eko ekainean, Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordea (CIPJ) esan zuen bazirela «Buenaventuran genozidioa gertatu delako zantzuak». Azken urteetan, hiria talde paramilitarren menean gelditu omen da,

eta, CIJPK salatu duenez, Estatuko agenteek toleratuta jarduten dira.¹

Indarkeria iristearekin, apalduz joan da La Playita auzoko kaleetan zegoen giro bizia, eta eguneroko ogia bihurtu dira mehatxuak, estortsioak, urraketak, tiroketak, torturak eta hilketak. Izuak hartu zituen Puente Nayeroko zurezko etxeak, eta auzotarrak haietara bildu ziren. Etxe horietakoren batzuk “casa de pique” bihurtu zituzten; hau da, jendea torturatzeko, hiltzeko, gorpuak zatikatzeko eta mozteko, eta ondoren itsasora botatzeko leku.

Halako batean, Marisol hil zutenean, hain justu —auzoan itsaskiak saltzen zituen emakume bat—, inflexio-puntu bat gertatu zen, eta haserre gailendu zitzaion beldurrari. Herritarrak, CIJPren laguntzaz, estrategia kolektibo bat bilatu zuen, eta, jende armatuak kanporaturik, beren bizia eta osotasun fisikoa babesten hasi ziren, eta orobat beren lurralde eskubideak zaintzen. Hala, Puente Nayeroko Eremu Humanitarioa sortu zuten, hiri ingurune batean egiten den horrelako lehen saioa. Handik egun gutxira, 2014ko apirilaren 13an —orduan eratu zen Eremu Humanitarioa—, CIJPK kautelazko neurriak eskatu zizkion Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanoari, herritarren babes bermatua izan zedin.

Komunitate ekimen honi esker, Puente Nayeroko auzotarrak jarraitu ahal izan dute beren lurraldean bizitzen, nahiz eta setioak jasan gatazka armatuaren eta indarkeriaren dinamikak direla medio. Sortu zela hiru urte igaro diren honetan, talde paramilitarrak kaletik igortzea lortu dute, eta zenbait

‘pique’ etxe desegin. Horrela, auzoaren konfiantzazko sareak berritu dituzte. Gainera, Puente Nayeroko esperientzia auzoko beste sektore batzuetara hedatu da, ikusi baitute bakea eraiki daitekeela eremu humanitarioak sortuta, eta horrekin esperantza hartu dute egiturazko indarkeriari aurre egiteko orduan. Hala, 2016ko urriaren 6an, La Playitako auzotarrek beste Eremu Humanitario bat eratu zuten, oraingoa Punta Icaco kalean. Horri esker, auzoko karrikek berriz hartu dute bizitasuna.

Hala ere, Buenaventura da oraindik ere Kolonbiako hiririk arriskutsuenetako bat. 400.000 herritar inguru direnak, hiri horren heren batek aitortuta du indarkeriaren biktima izan dela.² Kopuruek argi eta garbi azaltzen dute: 1990etik 2014ra, 26 sarraski izan dira, 475 desagerrarazpen, 4.799 hilketa eta behartutako 152.837 desplazatze.³

Horren guztiaren atzean kausa bat dago gatazka armatuan dabilen jendeak izuaren estrategia erabiltzeko; hots: armen eta kontrabandoaren ibilbidea kontrolatzea. Baina Buenaventurako portua ez da soilik droga ateratzeko korridore estrategiko bat, Kolonbiako portu nagusia baita eta Latinoamerika osoan tamaina handiena duena; hortaz, ekonomia globalerako ere lurralde geoestrategikoa da. Hortik pasatzen dira 12 milioi tona salgai urtero, herrialdeko bolumen komertzial osoaren %67.⁴ Alde horretatik, Asia-Pazifikoko merkataritza ibilbidean, zeina gero eta gehiago hazten ari baita, toki zentrala bihurtzen ari da Buenaventurako portua. Garapen neoliberalaren epizentroa izaten ari da



Ume bat, hiru egunetik iristen den ura aprobetxatzen, dutxatzeko.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Karrika eraldatu egiten da hiru edo lau egunean behin ura iristen denean. Emakume eta haur hor irteten dira «galoneta» (bidoi) hutsekin, ura hartzeko guneetara.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Barne gatazka dela-eta itxian pasatu dituzten bi urteen ondoren, komunitateak bere bizimodua egitea lortu du berriz Puente Nayeroko Eredu Humanitarioan.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Eskuz egindako arrantza diru-sarbide inportantea da Puente de los Nayerosko familientzat.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Handik hurbil dago portua, urtero 12 milioi tona zamatzen dituen. Buenaventura bihurtu da Kolonbiako portu printzipaletako bat, garapen neoliberalaren asmoen epizentro; bitartean, jendearen %80 pobrezian bizi da. Portuaren azpiegitura zabaltzeko planekin, berriz etorri da giza eskubideen urraketa uholde bat.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI

Kolonbia azken urteetan sinatzen ari den merkataritza libreko itun ugarietan.

Gaur egun, interes horietako bat da azpiegitura berriak sortzea eta portua zabaltzea, eta horrek liskarrak sortu ditu Buenaventurako lurraldeetan, lehendik gatazka girorik baldin bazen. Hazkuntza ekonomikoa, modernizazioa eta portuaren zabalkundea gauzatuko badira, jendea bota eta desplazatu beharko dute itsasoari irabazitako lurretatik; orduan, jende hori bigarren behartuko litzateke desplazatzera, dagoeneko gatazka armatuarena pairatua dutenez gero.

Herritarren %80 pobre bizi da, eta gehienek ez dute eskura edateko urik;⁵ horri gaineratzen bazaio ekonomia globalari lurralde honen ateak zabaltzeko interesa, giza eskubideen urraketa fase batean sartuko da berriz: desplazamenduak, indarkeria gorria eta ehun sozialaren desintegrazioa; horrekin batera, pixkanaka desagertuz joango da uraren inguruan eratua dagoen bizibide

tradizionala. Horiek adibideetako batzuk.⁶ Horregatik, Buenaventurako herritarrak kalera atera ziren 2017ko maiatzan eta ekainean, 21 egun iraun zuen lanutze zibiko batean. Errepresioa eta kriminalizazioa pairatuagatik, Buenaventuran izandako protesta sozialek erakusten dute jendea ari dela erresistentzia estrategiak hedatzen beren bizimoduan eta lurraldean inposatu nahi duten indarkeria askotarikoei aurre egiteko.

¹ Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordea / Mundubat. 2005.«Buenaventura. El despojo para la competitividad». www.mundubat.org/wp-content/uploads/2016/03/BuenaventuraInprenta.pdf

² «Buenaventura: un puerto sin comunidad», El Espectador, 2015eko ekainaren 1a. <http://www.elspectador.com/noticias/nacional/buenaventura-un-puerto-sin-comunidad-articulo-563958>

³ «La oscura noche de Buenaventura» Verdad Abierta, 2015eko ekainaren 2a. <http://www.verdadabierta.com/victimas-seccion/los-resistentes/5815-la-oscura-noche-de-buenaventura>

⁴ Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordea / Mundubat. 2005.«Buenaventura. El despojo para la competitividad». <http://www.mundubat.org/wp-content/uploads/2016/03/BuenaventuraInprenta.pdf>

⁵ «Dieciocho días de protesta social muestran las dos caras de Buenaventura», Kolonbiako PBI, 2017ko ekainaren 2a. <https://pbicolombiablog.org/2017/06/02/dieciocho-dias-de-protesta-social-muestran-las-dos-caras-de-buenaventura/>

⁶ Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordea / Mundubat. 2005. «Buenaventura. El despojo para la competitividad». <http://www.mundubat.org/wp-content/uploads/2016/03/BuenaventuraInprenta.pdf>

San Jose Apartadoko Bake Komunitatea

KOLONBIA

San Jose Apartadoko herri nekazaria, Antioquiako Uraban dagoena, urteetan eta urteetan bizi izan da gatazka armatu baten erdian. Panamako ubidetik hurbil bizi denez, baliabide natural ugari leku batean, lurralde geostrategikoa bihurtu da, eta gatazka armatuaren gunetako bat. «Petrolio dago, ikatza dago, ur erreserba bat, ur bilgune handia, makina bat mineral, eta nekazaritza oparoko gunea da. Kokaren eta marihuanaren ekoizpenean ere interes handiak daude», azaldu zuen Jesus Emilio Tuberquiak, San Jose Apartadoko liderrak, 2013ko elkarriketa batean.¹

Gerrilla eremu horretan ibili da 70eko hamarkadatik, eta 1996an, gatazka armatua gero eta gehiago ilundu zen, talde paramilitarren sarrerarekin; horren ondorioz, herritarrek ere gero eta eraso eta giza eskubideen urraketa gehiago pairatu dituzte. Muturreko indarkeria horretan, eguneroko ogia bihurtu dira hilketak eta desplazamendu behartuak.

Giroa horretan, nekazari komunitate honek babes mekanismoak asmatu behar izan ditu ezinbestean. Hala, 1997an, San Jose Apartadoko Bake Komunitatea eratu zuten, eta, beren burua neutral harturik, talde

armatu guztien presentzia ukatu zuten beren lurraldean. Bake Komunitate hau eratzeko akta sinatuta, ordea, ez zen eten indarkeriarik. Bestaldera, sortu eta denbora gutxira, talde paramilitarrak heldu ziren lurraldera, eta berriz hasi zen mehatxu, sarraski eta desplazamendu uholdea. Hala eta guztiz ere, ehunka lagunek bertan gelditzea erabaki zuten; galdutako lurraldeak berreskuratu, eta buru eman zieten hilabeteetako indarkeriari, hilketei eta blokeo ekonomikoei, talde armatuek ezarriak janari-sarbidea debekatzeko. Komunitatea oso gogor jo zuen 2015eko otsailaren 21eko sarraskiak. Kolonbiako Autodefentsareko Unitateetako (AUC) paramilitarrak, armadaren XVII. brigadaren laguntzarekin, Mulatosko eta La Resbalosako bidexketan sartu ziren, eta zortzi lagun hil zituzten; horietako bat hiru urteko umea, eta beste bat, Luis Eduardo Guerra lider historikoa, komunitatearen sortzailea.²

Indarkeria eten ez den giro honetan, San Jose Apartadoko Bake Komunitateak goraki aldarrikatu du lurralde bat izateko eskubidea, eta indarkeriarik gabeko bizimodua, ekintza terroristei aurre egiteko erresistentzia baketsu gisa. Komunitatearen parte izateko, komunitateak elkarrekin ezarri dituen

Beldurgarria izan da hogei urte honetako indarkeria: 320 lagun hilak, 350 hiltzera mehatxatuak, 100 tortura kasu, 50 desplazamendu.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI





San Jose Apartadoko Bake Komunitateak bere erresistentziaren 20. urteurrena ospatu du, omenaldia eginez hildako senideei.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Doña Brigida, koadroak margotzen, gerrak sorrarazi duen minaren lekukotasun gisa eta memoria berreskuratzeko tresna gisa.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Doña Brigida, hil dioten alabaren argazkia eskuetan duela.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Bake Komunitateko tenplua, gatazka armatuen biktimen memorian eta oroimenean egina.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI



Bake Komunitatearen sorrerari esker, herritarrek beren lurraldean bizitzen jarraitu ahal izan dute, nahiz eta setioak jasan gatazka armatuaren eta indarkeriaren dinamikak direla medio.

■ Bianca Bauer ■ Kolonbiako PBI

printzipioak bete beharra dago, hala nola armak dituen inortxorekin ez kolaboratzea, lan kolektiboetan parte hartzea eta Estatuaren kalte ordainei uko egitea; hori dute zigorgabetasuna borrokatzeko modua, justizia lehengoratzeko eta egia azaleratzeko.

Gatazka armatuan ez parte hartzeko printzipio politikoetan oinarrituta, komunitateak bere oinarriak jarri ditu era alternatibo batean bizitzeko. Esate baterako, blokeo ekonomikoekin ezarritako gose-hesiari erantzuteko, elikadura subiranotasunaren estrategia kolektiboa erabili dute. Gero, Erresistentziaren Unibertsitatea eratu zuten, eta hezkuntza eredu alternatibo bat eraiki, komunitateek beren lurraldetik hartutako jakintzetan oinarrituta. «Biziaren alde borrokatuz eta Bake Komunitatearen lurraldean erresistentzia eginez, eragotzi egin dugu orain arte nekazari askoren desplazamendua», zioen Jesus Emilio

Tuberquiak. «Borroka honegatik izan ez balitz, nekazariak hirietara desplazatuak leudeke gaurgero».³

2017ko martxoan, Bake Komunitateak erresistentziaren 20. urtea ospatu zuen. Bidea ez da erraza izan. Denbora honetan eta egundaino ere, hango herritarrek aurre egin diete segimenduei eta zainketei, atxiloketei, judizializazioei, seinalatzeei, irainei, mehatxuei, erasoei eta hilketei. Datuak izugarriak dira: 1997an eratu zenetik, Komunitateko 320 lagun hil dituzte eta 350 hilketa mehatxu erregistratu dituzte, 100 tortura kasu eta 50 desplazamendu.⁴

Hala ere eta guziz, San Jose Apartadoko Bake Komunitateak jarraitzen du esperantzaren eredu izaten. «Polita da ikustea nola lortu dugun guk, nekazari humilok, armarik gabeko herritar zibilok, gure lurraldean eustea eta hura defendatzea», esan zuen Gildardo Tuberquiak, komunitateko liderretako batek. «Eta eutsiko diogu oraindik ere, baldin eta antolatzen asmatzen badugu».⁵

¹ «Lo económico y lo político – luchas complementarias desde la Comunidad de Paz de San José de Apartadó», Kolonbiako PBI, 2013ko martxoaren 3a. <https://pbicolombiablog.org/2013/03/03/entrevista-lo-economico-y-lo-politico-luchas-complementarias-desde-la-comunidad-de-paz-de-san-jose-de-apartado/>

² «La condena a cuatro militares por la masacre de San José de Apartadó», Verdad Abierta, 2012ko ekainaren 14a. <http://www.verdadabierta.com/component/content/article/75-das-gate/4060-revocon-parcialmente-sentencia-por-la-masacre-de-san-jose-de-apartado>

³ «Lo económico y lo político – luchas complementarias desde la Comunidad de Paz de San José de Apartadó», Kolonbiako PBI, 2013ko martxoaren 3a. <https://pbicolombiablog.org/2013/03/03/entrevista-lo-economico-y-lo-politico-luchas-complementarias-desde-la-comunidad-de-paz-de-san-jose-de-apartado/>

⁴ «Veinte años de resistencia», Koloniako PBI, 2017ko martxoaren 31. https://pbicolombiablog.org/2017/03/31/20-anos-de-resistencia/#_ftn1

⁵ «La Comunidad de Paz alcanza la mayoría de edad», Kolonbiako PBI, 2015eko apirilaren 6a. <https://pbicolombiablog.org/2015/04/06/la-comunidad-de-paz-alcanza-la-mayoria-de-edad/>

